

## Herririk Herri |4|

32 stand antonduko dituzte asteburuan, Landako Gunean, VI. Aukera Azokan



## Berbaz |8|

J.J. Gaztañazatorre: "Trenaren lurperatzea ia eginda dago, ez dadila gehiago atzeratu"

## Kultura |9|

Ignacio Conde Sanblasetako argazki lehiaketako irabazleagaz berbetan

# Ordenamenduari buruzko herri galdeketa domekan

> Domekan herriko ordenamendua berrikusteko herri galdeketa deituta daude izurtzarrak

> Bozka udaletxeko pleno aretoan eman dezakete 11:00etatik 19:00etara

2

## Baserritar ekoizleen merkatu berria Eroskiko parkingean

**Durangaldea** • Eskualdeko baserritar ekoizleek euren produktuak salduko dituzte Eroski supermerkatuaren sarrean, hileko lehen barikuetan. Urkiola landa garapen elkarteak martxan jarritako *Baserritik plazara* ekimenagaz, Traña-Matienan eguaztenetan egiten den Abadiñoako merkatuan ere euren postu bereiztuak izango dituzte.

3

"Pilotak dena eman eta guztia kendu dit; pilotagatik naiz naizen modukoa"

**Kirola** • Master Jai pilota arloko enpresaren kudeaketa utzi du Aitor Totorikak (Durango, 49 urte). Pilota munduagaz lotuta jarraituko du, baina enpresaren gidaritza Mikel Plazaren esku geratuko da. Totorikak 21 urte eman ditu pilota munduan buru-belarri, lanean eta borrokan, eztabaidan eta erabaki garrantzitsuak hartzen; "lagunaketa etsaiak egiten", berak onartzen duenez. Hala ere, ezin zuen besterik barik alde egin; Asegarcetik irten zuenetik beti izan du eskupilota koadro propioa sortzeko asmoa, eta orain proiektu hori bideratuta dagoela dio: "Hile batzuk atzeratuko da aurkezpena, baina Master Jaik eskupilotan jardungo du".

15



Kepa Aginako

### •Atxondo

Udalaren aldeko bigarren epaia Anbotope auzian

6

### •Durango

'Emakumeok plazara' martxoaren 4an aurkeztuko dute

4

### •Otxandio

Neberaren historiari buruzko erakusketa Bolatokian

6

### •Abadiño

Traña-Matienako garbiketa zerbitzua esleitu du udalak

7

# ALKIMAX

Alquilamos soluciones

Eitua Industrigunea  
71C  
48240 BERRIZ  
(Bizkaia)  
94 682 45 50  
www.alkimax.com  
alkimax@alkimax.com

# HERRIRIK HERRI >

## IZURTZA

### Ordenamendua berrikusteko hurrengo pausua: herri galdeketa

Domekarako antolatu duten herri galdeketa euren bozka ematera deituta daude izurtzarrak

**H**irigintza egiteko modu berriak bilatuz jardun dutela hamar hileotan nabarmendu digute herriko ordenamendua berrikusteko prozesua dinamizatzen jardun duten hainbat jakintza arlotako lantaldekoek prozesuaren gaineko balantzea egiteko eskatu diegunean.

Ordenamendua berrizteko prozesuetan, sarritan herritarren parte-hartzea udalean burututako lanaren osagarri moduan aurkezten dutela eta herritarrek ekarpenak egiteko izaten duten aukera bakarra alegazioetarako tartea

izaten dela azpimarratu digute talde eragileko kideek. Izurtzaren kasuan, berriz, prozesua garatzeko ezinbesteko baldintza izan da herritarren parte-hartzea, eta herritarren ekarpenak izan ei dira prozesuaren muina: lan-metodologiaren oinarria izan da herritarren parte-hartzea eta prozesuaren faseak ere parte-hartze horrek markatu dituela azaldu digute, talde eragileko kideek.

Domeka honetakoa da, otsailaren 27koa, metodologia horrek zehazten duen hurrengo hitzordua: goizeko 11:00etatik 19:00ak arte eman ahalko dute herritarrek euren botua herri galdeketa.

Irailtik burutu dituzten herri batzarretan Izurtzako biztanleriaren %20k parte hartu izana oso aberasgarritzat jotzen dute udalean. Herriaren diagnostia egitea



Izurtzarren %20 inguruk hartu du parte irailtik hona burutu dituzten batzarretan.

**Ordenamendua berrizteko prozesuaren ardatza izurtzarren ekarpenak izan direla dio talde eragileak**

## IURRETA

### Arriandiko pasabidea maiatzean amaituko dute

Tunela egiteko beharren epea hile bi luzatzea onartu du Iurretako udalbatzarrak aste honetan

Azarotik dabilta Arriandin beharrezan lur azpiko pasabidea egiten, eta lanak amaitzeko aurreikusitako baino denbora gehiago behar dute. Martxoaren erdi ingurura arteko epea zeukaten obran

**Pasabidearen ezkerreko sarrera amaitu dute eta tunela egiten hasi dira**

izan zuten hasierako egitekoa: arloka, herriaren indargune eta ahulguneak identifikatu, eta herri eredu bat zehaztu zuten; eraikuntza, industriagune edo ingurune arloan herriak zelakoa izan behar lukeen eztabaidatuz.

arduradunek, baina, arazo batzuk tartean egon direla-eta, luzatu egingo da epea, maiatzera arte. Astelehenean Iurretako udalbatzak epea luzatzea onartu du.

Asteon hasi dute errepide azpiko tunela. Orain arte pasabidearen sarreran egon dira beharrezan, Zornotzarako noranzkoan, ezker aldean; errepidera heldu direnean behin-behineko saihasbidea egin dute ibilgailuentzat. Gerora, eskuma aldetik ere berdina egingo dute; desbideraketa egiteko bidea atondu behar dute, eta orduan hasiko dira tunela eskuma aldetik egiten.

**Beharrak atzeratzeko hainbat arrazoi egon da; eguraldia, tramiteak eta baita kable sareekin izandako arazoak ere**

#### Lanak, "erritmo onean"

Iñaki Totorikaguena Iurretako alkateak azaldu duenez, beharrak "erritmo onean doaz". Obran arduradunek Aldundiagaz izandako tramite batzuen eguraldiatik eta kable sare batez izandako arazoetatik eskatu dute epea luzatzea. "Hile bi gehiago edukita pasabidea amaitzeko moduan egongo dira", alkatearen arabera. ■ A.U.

**Domekako herri galdeketa jasotako botoak zenbatuta, emaitzaren interpretazioa martxoan egin gura dute**

Domekako galdeketa jasotako bozka zenbatuta, emaitzaren interpretazioa egitea izango da herriko ordenamendua berrizteko prozesuan hurrengo pausua: apirilaren hasierarako gura dute hasierako onarpena egin. ■ I.E.

## MAÑARIA

### Udalaren Interneteko gune berria martxan dago

Lehenago ere udalak martxan zeukan helbidean ([www.manaria.org-en](http://www.manaria.org-en)) baina itxura eta edukia berriago dago otsail erdialdetik erabilgarri udalaren webgunea. Bizkaiko Aldundiaren *Biscaytik* proiektuaren barruan garatutakoa da berria, eta, diseinatzaile berriekin, "udalaren irudi berria oinarriturik plataformaren modernoa, intuitiboa eta erabilgarria" hornitua sortzea izan dute helburua.

Udal zerbitzuei, turismoari eta kultur eskaintzari buruzko informazioa zabaltzeaz gain, "udalerriri buruz interesgarri jotzen dugun guztia" zabaltzea izango da aurrerantzean webgunearen funtzioa: horretarako berriak dituzte 'Agenda' eta 'Albisteak' atalak, esaterako.

Egitasmoaren bigarren fase batean, herritarrei administrazioagazko hartu-emanak eta tramiteak etxetik bertatik burutzeko aukera eskaintzea zehaztu dute helburu moduan. ■ I.E.

### Hilaren 5ean, emakumeen afaria Goiurian

Martxoaren 8a gertu dagoela-eta, inauterietako zapaturako afaria antolatu du Anderebide emakume elkarteak. Goiuriko Ikuspegi jatetxean afaltzeko gonbitea egin diete herriko eta inguruetako emakumei. Karnabak tartean daudenez, afarira moztortuta joateko deia egin du, gainera, Anderebidek.

**Zapata karnabal denez, moztortuta joateko deia egin du Anderebidek**

Afarirako ordua 21:30ean ipini dute, eta Goiurira igotzeko autobusa edukiko du gura duenak. 20:45ean irtengo du autobusak Correos pareko autobus geltokitik.

Ibarretxe kultur etxean edo Anderebideren telefonora deituta (616 490 506) eman daiteke izena, eta horretarako azken eguna martxoaren 3a da. Bazkideek 20 euroan izango dute txartela, iurretarrak 25 euroan eta gainerakoek 30 euroren truke. ■ A.U.

**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea  
48215 IURRETA (Bizkaia)  
Tel.: 946 816 673  
Faxa: 946 817 636  
construcciones@zarateyexpe.biz



**DURANGALDEA**

# Baserritar ekoizleek merkatu berria dute Eroskiko sarreran

Ekoizleek euren produktuak salduko dituzte hileko lehen barikuetan supermerkatuaren kanpoaldean

**A**badiñoko Ezker Abertzaleko lan talde batetik irten eta Urkiola landa garapen elkartearen mamitu den *Baserritik plazara* egitasmo berriak baserri-

**Merkatu berriaren eskualdeko ekoizleek ekoiztutako produktuak salduko dituzte**

tar ekoizleei bultzada ematea eta duintasunez lan egin dezaten baliabideak eskaintzea ditu helburu. Ekimenak orain antolatzen diren merkatuetan eragin gura du, baina espazio berriak sortzea ere bilatzen du.

Bide horretatik, datorren barikuan hasita, martxoaren 4an, Eroski supermerkatuaren kanpoaldean 12 postugaz osaturiko merkatua antolatuko dute hileko lehenengo barikuetan. Merkatu horretan, Durangaldeko ekoizleek produktuak erosteko aukera egongo da, 17:00etatik aurrera.

Ekimenagaz, alde batetik, kontsumitzaileei babesa eskaini

gura diete birsaltzaileen aurrean; ekoizle ez diren saltzaile horien aurrean, kontsumitzaileei bermea eskaini gura diete, erosten dutena benetan eskualdeko ekoizleena dela adieraziz.

Ekimenagaz bat egin duten ekoizleek eta Urkiola landa garapen elkarteak akordioa sinatu dute, bakoitzaren konpromisoak zehaztuz. Horrela, besteak beste, postuetan ekoizleek gainera datuak jakinaraziko dituzte (izen-abizenak, jatorria, produkzio mota...). Horrela, ekoizle horiek beren beregi ekimen honetarako sortutako logotipoekin atondutako postuetan salduko dute: "Kontsumitzaile-

**Eguaztenetik aurrera, Abadiñoko merkatuan ere lekua izango du egitasmoak**

leekin hartu-eman sendotu gura dugu. Sortu dugun logotipoa ikusten duenak argi izan dezala postu horretan saltzen diren produktuak bertako saltzaileenak direla eta eurekoiztiaz", dio Juan Mari Totorika Urkiola landa garapen elkartearen gerenteari.

Abadiñoko Traña-Matiena auzoko azoka txikian ere ezarriko dute egitasmoa. Datorren eguaztenetik aurrera ekimeneko ekoizleek logotipo berriko postuetan salduko dituzte produktuak; standak ere bereziak izango dira, berde kolorekoak. ■ J.D.

**MALLABIA**

# Kultur Etxeko teilatua konponduko du udalak

Mallabiko Udalak Kultur Etxeko teilatua konpondzeko diru-atala bideratuta du aurrekontuetan. Teilatua osoa aldatzeak 75.000 euroko gastua eragingo dio udalari. Aitor Loiola alkateak jakitera eman duenez, teilatua egoera txarrean dago eta osorik berriztatuko dute. "Ematen duenez, teilak kalitate txarrekoak dira eta

**Teilatua aldatzeak 75.000 euroko gastua eragingo du Mallabiko Udalaren aurrekontuetan**

hotzagaz birrindu egiten dira. Ez dira hamabost urte teilatua egin zenetik, baina obra egitea garrantzitsua da".

Lanak noiz jarriko dituzten martxan zehaztu barik daukaten arren, aurrekontuetan dutela aurreratu du Loiola alkateak. ■ J.G.

**Kultur Etxeko teilak kalitate txarrekoak dira eta hotzagaz birrindu egiten dira, alkatearen berbatan**



Ekimenaren sustatzaileak eta baserritarrak batu ziren atzo Berrizen egindako aurkezpenean.

# Karnabalak 2011

## MARTXOA

**EGUEN ZURI**  
18:00 / 19:00 Karnabaletako kontzertuak Bartolome Ertzilla musika eskolan

**ZAPATUA**  
Kriskitin dantza taldea, Jaizale txistulari elkarte, Tabira musika banda  
18:15 Merkatu plazan elkartzea / 18:45 Irteera / 20:00 Bukaera Andra Mariako elizpean

**MARTITZENA**  
11:00-14:00 / 16:00-20:00 Txu txu tren. Irteera Landako Gunetik  
16:00-20:00 Umeentzako parkea Landako Gunean  
16:30-19:30 Gazteentzako mozorro jaialdia: diskoteka, karaokea, animazioa eta sarien zozketa San Agustin kultur gunean  
17:30 "Gramola" haur berbena Txorromorro taldearekin Landako Gunean

**EKINTZAK ADINEKOEN UDAL EGOITZAN**  
17:30-18:00 Tostada lehiaketaren V. edizioa. Erretiluak entregatzea  
18:00-20:30 DUO TWISTER-ekin show musikala  
19:00 Tostada lehiaketaren sari banaketa

**EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA**  
19:00 Mozorro kalejira feminista Andra Maritik hasita. Berdintasun Udal Kontseilua

www.durango-udala.net

## DURANGO

# Hileta zibilen gaineko ordenantza atzera bota dute EAJren eta PPren botoekin

Ordenantzak bermatu gura duenagaz "ados" daude, baina "batzordean lantzeko beharra" adierazi dute

Aralar alderdiko Iker Urkiza zinegotziak hileta zibilen gaineko ordenantza behin-behinean onartzea eskatzen zuen mozioa aurkeztu zuen martitzeneko udalbatzarrean. Alderdi guztiak ados agertu ziren ordenantzaren edukiagaz, baina PPK eta EAJk gaia mozio bitartez udalbatzarrera eroan izana salatu zuten, eta aurretik Hirigintza

**EAJren ustez, gaia Hirigintza Batzordera bueltatu behar da eta lehenengo han adostu**

**Batzordean gaia lehenengoz aipatu zenetik zortzi hile joan direla salatu zuen Aralarrek**

Batzordean adostasuna lortzeko premia adierazi. Horregatik, kontra bozkatu eta mozioa atzera bota zuten. Talde Mistoak, PSE-EEketa Aralarrek alde bozkatu zuten.

Aralarreko zinegotzi Dani Maezturen esanetan, "Hirigintza Batzordean gaia lehenengoz aipa-

tu zela zortzi hile joan dira, eta harrezkero horri buruz sarritan galdetu dugun arren, eztabaidak ez du aurrera egin; horregatik ekarri dugu udalbatzarrera".

EAJko bozeramaile Goiztidi Diazen berbetan, "gure alderdiak badu interesa hileta zibilen gaian aurrera egiteko, baina ez edozein; Hirigintza Batzordera bueltatu behar litzateke, han adosteko".

PPko zinegotzi Cristina Ibarrolak ere antzeko adierazpenak egin zituen. "Edukiagaz bai, baina formekin ez" zeudela ados adierazi zuen, eta gainera ordenantza "osatugabea" dela adierazi zuen.

Talde Mistoak "begi onez" ikusi zuen bai edukia bai gaia udalbatzarrean eroan izana: "Ezkontza zibilak ospatu izan baditugu, agur zibilak ere bermatu beharko liriteke. Tokia zehaztea falta da, baina hori adosteko alegazioen epea hortxe genuke".

PSE-EEko zinegotzi Pilar Riosen ustez, ordenantza aurrera ateratzea "borondate politiko" kontua da, "ez baitu baliabide eta ahal-egin ekonomiko handirik eskatzen". "Bermatu behar den kontua da", gaineratu zuen. ■ J.D.

## Gazteen lokalak erregulatzeko premia adierazi du PSE-EEK

Durango PSE-EEK gazteen lokalak erregulatzeko ordenantzaren zirriborroa erregistratu zuen joan zen egunean udaletxean. Horrela, gaiarekiko eztabaida sustatu gura dute, ordenantza bat "beharrezkoa" dela esanez. Udaltzaingoa araber, 2010ean 152 salaketa jaso ziren auzokideen aldetik. Pilar Riosen esanetan "legegintzaldi honetan sarritan eskatu dugu ordenantza lantzeko, baina alkatea ez dela beharrezkoa esatera iritsi da".

Aurreko urteetako datuak ere jakinarazi dituzte: 2008an 140 salaketa; 2009an 122 eta 2011ko urtarilean 10. Gainera, udaltzaingoa 21 lokalen berri badu ere, bulego teknikoak 23 espediente ireki ditu 2004az geroztik, horietatik 12 lokalak ixteko agindua dute, nahiz eta orain arte "hiru bakarrik" itxi diren. "Horrelako 60 lokalatik gora daudela uste dugu". Derrigorrezko deritzote gazteen lokalak baldintza minimoak betetzeari, segurtasun, insonorizazio, higiene eta ordutegian. Erregularizazioa alde guztiekin elkarlanean egin gurako lukete. ■ M.O.

## 'Emakumeok plazara' ekimena aurkeztuko dute martxoaren 4an

Martxoaren 4an Sapuetxe Gaztetxean antolatuko duten jaialdiaren bitartez, *Emakumeok plazara* ekimena aurkeztuko du Durango Bilgune Feministak. Emakumea "eremu kulturean publikora salto egiteko hainbat oztoporekin aurkitzen da", diote bilgune kideek, eta eredu hori apurtuz "emakume sortzaileei txokoa eskainiko dien proiektuaren kimua" izan gura du ekimenak. Webgunea ere badute: [www.emakumeokplazara.org](http://www.emakumeokplazara.org).

**Emakume sortzaileei txokoa eskainiko dien proiektuaren kimua izango da ekimena**

Lehenengo, 20:30etik aurrera, Miren Amurizak eta Mireia Salgadok *Emakumeok plazara, zer eta nola?* hitzaldia eskainiko dute. Ondoren, Maite Castroren performance-dantza ikuskizunagaz eta Mursego eta DJ Sansonen musika emanaldiekin gozatu ahal izango da. ■ J.D.

# 16.000 lagun itxaroten dituzte Landako Gunean asteburuko Aukera Azokan

+Dendak elkartearen VI. Aukera Azokak gaur zabalduko ditu atak



Antolatzaileek prentsaurrekoa eskaini dute, asteon, ekimenaren berri emateko.

**A**ukera Azokak 32 komertzio bilduko ditu, gaurtik domekara, Landako Gunean. +Dendak elkarteak antolatutako ekimenean 30 dendak, kontzesionario batek eta taberna batek parte hartuko dute. Aurten atonduko dituzten 32 standetatik 11 berriak izango dira. Elkarrean herri gehiagotara zabaldu denez, Berrizko denda bik ere parte hartuko dute aurten. Beherapen erakargarriekin, hainbat produktu

**Antolatzaileen esanetan, aurtengo azokan 32 stand atonduko dituzte, ia bano 5 gehiago**

Joan zen zapatuan, Gernikako Akordioa aurkeztu zuten Andra Mariko elizpean egindako ekitaldian. Akordioa irakurtzeaz gainera, Sermonds taldeko abeslariak abesti bi eskaini zituen, akustikoan. Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolarien bertsoak ere tarretatu zituzten ekitaldian, eta akordioagaz bat egin duten sinatzaileek Gernikako bonbardaketa islatzen duen Picassoren koardroaren puzzlea osatu zuten.

Lehenengo fase batean hauek dira Gernikako Akordioari atxikimendua erakutsi dioten talde, elkarte edo eragileak: Aralar, Iratzarri, EA, Gazte Abertzaleak, Ezker Abertzalea, Gazte Independentistak, LAB, Etxerat, Bilgune Feminista, EHNE, Ikasle Abertzaleak, Ahotsak, Kultureko jokalariek, errugbi jokalariek eta Bidezabaleko kirolariak. Datozen asteetan ere bestelako talde eta elkarte batzuen atxikimendua lortzen saiatuko dira. ■ J.D.

jarriko dituzte salgai: bitxiak, koltxoiak, haur eta helduendako jantziak, lentzeria, dekorazioa, masaje esku-oheak, oinetakoak, kirol dendetan egoten diren produktuak, optikakoak, etxerako eta brikolajerako produktuak e.a.

Saltokia ezartzeaz gainera, aukera azokak aisialdirako aukera ere eskaintzen du. Umeendako jolasgunea jarriko dute. Gaur bertan, 16:30ean, globoak banatuko dituzte, eta bihar arratsaldeko 17:30etik aurrera globoflexia tailerra antolatuko dute. Domekan, 11:30etik aurrera poneyak egongo dira Landako inguruan, eta arratsaldean ipuin kontaketa txotxongiloekin. "Azokak daukan harrera ona kontuan hartuta,

16.000 lagun azokara gerturatzea aurreikusten dugu, Durangaldekoak zein kanpokoak".

Azokako sarbidea errazteko erosketaren bat egiten dutenei Landakoko parkinean aparkatzeko ordu biko txartelak doan banatuko dizkiete. Horretaz gainera, Kobika eta Larrinagatxu jatetxetan bilagunendako lau afari, erosketarako orgak, motxilak eta abar zotz egingo dituzte. ■ J.D. / J.G.

**Barikua:** 11:00-14:00  
17:00-21:00  
**Zapatua:** 10:00-14:00  
17:00-21:00  
**Domeka:** 11:00-14:00  
17:00-19:00

## Gernikako Akordioaren aldeko ekimena egin dute

Andra Marian 200 bat lagun batu ziren; asteon Durango atxikimenduak ere jakinarazi dituzte



Andra Mariko elizpean gauzatu zuten ekimena.



**BAUTISTA**  
MUEBLES Y DECORACIÓN  
LAUDIO - ABADIÑO

Bautistako  
beherapenak

# BEHERAPENAK

% 70eko deskontuak, altzari.bilduma aldaketagatik.  
Bilatu gure dendetan deskontudun zirkuluak.



Urtarrilaren 7tik martxoaren 6a arteko beherapenak, edo estoka amaitu bitartekoak

**OTXANDIO**

## Neberaren historia ezagutu ahal izateko erakusketa

Zapatuan, 19:30ean, irekiko dute bolatokiko aretoan sasoi bateko otxandiarrek izotza egiteko erabiltzen zuten Neberaren gaineko erakusketa. Igande eguerdian eta arratsaldean ere zabalik egongo da.

Orain urte batzuk elurtegia gaitzat hartuta osatu zuten *Orbelaren soinua* dokumentala egiten ari zirela ateratako 30 bat argazki ikusgai ipiniko dituzte; horregaz batera, Nebera egiten zuten sasoi-ko hainbat lanabes ere (otzarak, pala bereziak, orbela batzeko erremintak...) erakusketa osatzeko erabiliko dituzte.

### Argazkiek eta sasoi hartako lanabesek osatuko dute asteburuko erakusketa

Erakusketa inauguratzeaz gainera, bihar *Orbelaren soinua* dokumentala ere erakutsiko dute. Bertaraten direnek kopia bana ere jasoko dute DVD formatuan. Izan ere, udalak dokumentalaren 2.000 kopia egin ditu. Asmoa herritarren artean banatzea ez ezik, ahalik eta zabalkunderik handiena ematea ere badenez, laster Bizkaiko eta Euskal Herriko liburutegietara eta kultur etxeetara banatuko dute dokumentala, aleak amaitu arte, posta bidez. Horrela, herriko historiaren zati bat ezagutzera eman gura dute. ■ J.D.

**BERRIZ**

## Gaur hasiko da sexismoaren gaineko arte tailerra

Artea eta feminismoa lotuz, indarkeria sexista era artistiko batean salatzeke baliabideak ezagutzeko da gaur hasiko den tailerren helburua. Joan zen barikuan egin zuten aurkezpena, eta gaurtik apirilaren 15era garatuko da ikastaroa.

Neska gazteei zuzendutako tailerra da udaleko Berdintasun Sailak eraturitakoa. Hain zuzen ere, DBHko 3. eta 4. mailakoentzat eta batxilergoko ikasleentzat izango da. Egunerokotasunean erabiltzen dituzten hainbat tresna sortzea izango dute helburu, eta, besteak beste, sexualitate gaiaren inguruan partaidetza errazteko aprobeztatuko dute. Hausnarketa eta heziketarako tartea ere hartuko dute, eta lanetako bat indarkeria sexista identifikatzen ikastea izango da. Gainera, euren bizi-penak konpartitzeko aukera ere izango dute saioetan, arratsaldeko 17:30etik 19:30era bitartean.

### Neska gazteei zuzendutako tailerra da Berdintasun Sailak antolatua duena

Bestalde, zoru pelbikoa indartzeko tailerrak ere hasiko dira astelehenean, 18:30etik aurrera. Idurre Zabala izango da dinamizatzailea. ■ M.O.

**ATXONDO**



Escola zaharrean udalak taberna, jatetxea eta denda ipini gura ditu.

## Udalaren aldeko bigarren sententzia Anbotope auzian

Epailak ebatzi du ez zela akats legalik egin Anbotopek lokala uzteko aginduan

**U**dalaren eta Anbotope elkarte gastronomikoaren arteko bigarren epaiketaren sententzia irten da astelehen honetan. Duela urte bi pasatxo Atxondoko Udalak Anbotoperi lokala uzteko agindua emateko idatzian akatsik ez zela egon ebatzi du epaileak bere epaian.

David Cobos alkateak, udalaren izenean, momentu honetan kaleratze-agindua emateko moduan dauden aztertzen dabiltzala adierazi du: "Urte bi baino gehiagoan gabilta aurrera eta atzera, eta azkenean denbora eta dirua galdu dugu". Anbotope

### Anbotopek errekurritu egingo du sententzia, eta udala kaleratze-agindua eman dezakeen aztertzen hasi da

elkarteko Eloi Isasik azaldu du elkartekideak epaia errekurritu eta "ahaleginetan jarraitzeko asmoa" daukatela.

**Bigarren epaiketa**  
Arrazolako eskola zaharrean arrendamendu kontratu finko barik egon da Anbotope 1996tik. Orduetik, urteroko kuota ordain-

du dute. Behin kontratua iraungita, jabeak erabakitzen du kontratua noiz amaitzen den, eta 2008an udalak kontratua etetea erabaki zuen.

Anbotopek ez zuen Arrazolako eskola zaharra utzi, eta idatzian akatsak zeudela eta administrazioagazko helegitea aurkeztu zuen. Auzi horren sententzia da asteon irten dena. Elkarreak lokala utzi ez zuenez, udalak kaleratze demanda jarri zuen, eta horretan ere epaileak arrazoiak eman zion ekainean. Anbotopek errekurritu egin zuen eta oraindino ez dago erantzunik. ■ A.U.

**ELORRIO**

## Basilikaren atzealdea hesiz itxi dute asteon

Gazteen bilgune bihurtu izan da basilikaren atzealdea, eta "hainbat kalte" eragin dituzte



Asteon hesitu dute basilikaren atzealdea.

Joan zen urtean Sortzez Garbieren Basilikako arduradunek basilikaren atzealdea hesiz itxi zuten baimena eskatu zioten Elorrioko Udalarari. Egoera aztertu eta udalak azaroan horretarako baimena eman zion. Azkenean, asteon hesitu dute basilikaren atzealdea. Meza bitarteko zaraten, pintaden eta antzeko arazoan gai-

nean kexatu izan dira behin baino gehiagotan basilikako arduradunak, eta udalak kasu egin die.

Niko Moreno alkateak bere sasoian gogoratu zuenez, "hainbat kalte eragin dituzte inguru horretan, eta atzealdeko atea erretzen" ere ahalegindu ei dira birritan. Basilikak ordaindu ditu hesitzeko lanak. ■ I.E.

## Atzera bota dute salaketa, forma irizpideak direla medio

Elorrioko Udaleko HAPOn aholku kontseiluko bi kidek (Auzo elkarten koordinadorako eta CCOO sindikatuko ordezkariak) salaketa ipini zuten epaitegian, Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko kontseiluan bertan eta udalean izandako "funtzionamendu antidemokratikoagatik". Batez ere, 2010eko abuztuko kontseilua aipatu dute, "behin-behinek neurriak" eskatzea arrazoitzeko. Auzitegiak adierazi du salaketa hori ezin dela ipini plan orokorra guztiz onartu arte; beraz, forma irizpideengatik ez du aurrera egin salaketak.

Auzo elkarten koordinadorak eta CCOO sindikatuak azaldu dute Plana onartzen denean "inolako zalantza barik" berriro ipiniko dutela errekurtsioa. ■ J.D.

### Hiri Antolamendurako Plana guztiz onartu arte salaketarik ezin dela aurkeztu dio epaiak

**Durangaldeko Behargintza**  
Eskualdeko Garapen Agentzia  
Agencia Comarcal de Desarrollo

**BFA DFB**  
Bizkaiko Foru Aldundia  
BERRIKUNTZA ETA EKONOMI SUSTAPEN SAIA

**EKINTZAILEENTZAKO OINARRIZKO TREBAKUNTZA**

**Enpresa berri bat sortzeko asmoa dutenei zuzendua**

**HELBURUA:** Durangaldean enpresa berriak sortu

**EDUKIAK:** Negoziazioa, forma juridikoa, eratzeko legezko izapideak, baimenak, lizentziak, finantzaketa eta laguntzak, arriskuak eta ingurumenekoak, zerga-ordainketa, ...

**IRAUPENA:** 2011ko martxoaren 15etik 25era (30 ordu)

**ORDUTEGIA:** Astelehenean ostegunera 09:30etik 13:15era

**TOKIA:** Durangaldeko Behargintza

**IZENA EMATEKO EPEA:** 2011ko martxoaren 11 arte

"Bizkaiko Foru Aldundiko autoenplegua eta enpresen sorrera sustatzeko diru-laguntza berria eskatzeko balio du"

**Durangaldeko Behargintza** Laubideta, 6 Durango tf: 94 623 25 22  
Ordutegia: astelehenean ostiralera 08:00etatik 15:00etara

[www.amankomunazgoa.com](http://www.amankomunazgoa.com)



## Durungaldean labor

### Sapuetxek etorkizuneko ildoak zehaztu ditu

Durangoko gaztetxeak etorkizunaz hausnartu du; Sapuetxe hartu-emanetarako tokia izatea gura dute, gazteen beharrak asetuko dituen. Horrez gainera, taberna gazteen erreferente bihurtzea gura dute, egunero zabaldua. Hilaren 26an, 10:00etan, auzolanean batuko dira, taberna pintatzeko eta kanpoan mural bat margotzeko.

### Sagardotegira irteera Atxondon eta Abadiñon

Atxondoko Gazte Asanbladak martxoaren 26an antolatu du sagardotegirako irteera. Martxoaren 12a baino lehenagoko ostiralean eman daiteke izena, 20:00etatik 22:00etara, Gaztetxean. Abadiñon, berriz, martxoaren 19an joango dira sagardotegira. Gaztetxean eman daiteke izena, 10 euroan. 11:30ean irtengo dute Abadiñotik.

### Durango-Arrasate autobus linea sortuko da

Pilar Ardanza garraio arloko diputatuak joan zen astean mugikortasunari buruz eman zuen hitzaldi batean jakinarazi zuenez, hurrengo hiletan Bilbo, Durango eta Elorrio lotzen dituen autobus linea Arrasateraino luzatuko dute. Aldaketa martxan ipintzeko akordioa Batzar Orokorrek onartzea bakarrik falta da.

### 18.000 euroko irabazia ekarri duen tasa

Durangoko PSE-EE alderdiak azaldu duenez, udalak 18.000 euroko irabaziak izan ditu bide publikoa okupatzeagatik tasak kobratzeari esker. Sozialistek proposatu zuten ordenantza 2010ean, eta gainerako kudeaketak ondo egiteko eskatu dute; udalak 2006tik terrazen gaineko tasa kobratu barik jarraitzen duela salatu dute.

#### ABADIÑO

## Traña-Matienako eta industriaguneetako garbiketa esleituta

Cespa enpresari esleitu diote orain arte lau udal langilek egin duten garbiketa lanen zerbitzua

Udal gobernuko independenteen eta jeltzaleen aldeko botoekin onartu zuten martitzeneko udalbatzarrean Traña-Matienako eta industriaguneetako garbiketa enpresa pribatu baten esku uztea. Orain arte udalak kontratatutako lau langileen ardura zen garbiketa Cespa enpresari esleitzea onartu zuten udalean gehiengo batzen duten Talde Independentiak eta EAJK.

**"Lehen legez bost egunetan barik, orain seitan" eskainiko dute zerbitzua, martxoaren erdialdetik aurrera**

Zerbitzua subrogatuta, "orain arte legez bost egunetan barik, seitan" eskainiko duela enpresak zerbitzua dio Navarro alkateak, eta aldaketak "zerbitzuaren kalitatea hobetzea" ere ekarriko duela.

Neurriaren kontrako jarrera agertu zuen martitzeneko plenoan Ezker Abertzaleak. "Zerbitzu publikoa hobetzea" izan beharko litzatekeela helburua eta "ez zerbitzuak azpikontratatzeari" adierazi zuen Aritz Basauri zinegotziak.

Legegintzaldi hasieratik iraun duen eztabaidagaia da udalaren garbiketa zerbitzua azpikontratzea. Martitzeneko udalbatzarreko gehiengoaren onarpenagaz, martxo erdialdetik aurrera ekingo dio Cespa enpresak lanari. ■ I.E.



Martxo erdialdetik aurrera ekingo dio enpresak lanari.

#### ZALDIBAR

## Txitxiburduntzia antolatuko du udalak domeka honetarako

Ohiturazko txitxiburduntzia egingo dute domekan Zaldibarren, udalaren ekimenez. Arratsaldeko 17:00etan hasiko da eskoletako pilotalekuan, udaletik azaldu dutenez.

Tradiziozko ekitaldia da domekakoa, baina udaleko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren babesean garatuko dena. Parte hartu gura duten herritarrek makila bakarrieroan beharko dute frontoira, gainerakoa udalak ipiniko du-eta: sua, musika, edaria, ogia eta txorizoak. Arratsalde pasa jai-giroan egiteko aukera emango dute, horrenbestez, domekan.

#### Gaur, liburutegian

Bestalde, Liburutegian ipuin kontalariak izango dira gaur arratsaldean, 18:00etatik aurrera. Iñaki Carretero eta Xue Zapataren eskutik. ■ M.O.

Zure hauteskunde programa sortu kanpaina martxan ipini duela iragartzeko agerraldia burutu zuen Talde Independenteko Jose Luis Navarro alkateak astelehenean. Maiatzeko hauteskundeetarako programa prestatzeko, herritarren ekarpenak batzeko zenbait aukera zabalduko dituztela aurreratu zuen.

Hiru herrigunetan herri-batzarrak deitu ditu, batetik, Talde Independentiak martxorako: aztertu ondoren euren hauteskunde programan jasotzeko asmoz, batzarrotan euren ekarpenak egitera gonbidatu dituzte herritarrek; martxoaren 2an Errota kultur etxean, 9an Txanportan, eta 16an Muntzaritzen, 19:00etan hasita batuko dira.

Herritarrek euren proposamenak egin ditzaten, bestalde, helbide elektronikoa ere zabalduko dutela aurreratu zuen Navarro: [aindependentiak@gmail.com](mailto:aindependentiak@gmail.com). Traña-Matienako Erezena kaleko lokalean ipiniko duten postontzian ere jasoko dituzte eskariak. ■ I.E.

## Talde Independentiearen programarako ekarpenak

Maiatzeko hauteskundeetara aurkeztuko duten programa herritarren ekarpenekin osatu guran



Jose Luis Navarro, Talde Independentiearen lokalean.

#### GARAI

## Txitxiburduntzia egiteko dira domekan garaitarrak

Ohiturazko irteera honetan parte hartzeko aukera eskainiko du Trumoitte kultur elkarteak

Durungaldeko eta, zelan ez, Euskal Herriko beste hainbat lekutan antzera, txitxiburduntzia egingo dute domekan garaitarrak. Garizuma aurretik, karnabal aurreko domekan ospatzen den ekitaldia da txitxiburduntzia; *basokoipe-tsu* eta *kanporamartxo* ere deitzen zaio, lekuan lekuko izenez.

**Goizeko 10:30ean ipini dute hitzordua plazan, handik Urdaigara joateko**

Garain, Trumoitte kultur elkartetik antolatuko dute irteera. Tradizioak dioen moduan, basora joan eta sua egin ondoren, txorizoak eta beste jaki batzuk erreko dituzte. Garaitarrak Berrizko Urdaigako ermitara joango dira, ibilalditxo eginez. Goizeko 10:30ean ipini dute hitzordua plazan, eta eguerdirako suaren bueltan egingo dira. Batzuk aurretik joango ei dira, sua egin eta lanak aurreratzeko. Gainera, umeentzako jokoak ere egingo dituzte. Eguraldi txarra eginez gero, frontoian geratuko dira. ■ M.O.

goizeko 08:00etatik gabeko 21:00etara zabalik

clínica dental hortz klinika  
b. unamunzaga e. etxebarria

{ odontologia orokorra eta espezialitateak }

muruetatorre bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51

Hemen agertu gura badozu

deitu!

94 621 79 02

## BERBAZ &gt;

**“Merkatariei eta enpresariei lagunduta durangar guztiei lagunduko diegu”**

Gizarte ekintza eta enplegua sustatzen behar egitea premiazkoa da, alderdi popularreko zinegotziaren ustez

**Juan Jose Gaztañazatorre**

- 63 urte ditu
- Durangarra, alderdi popularreko zinegotzia 1983 urtetik

**D**urangoko Udaleko zinegotzi veteranoena da Juan Jose Gaztañazatorre. 28 urte daramatza alderdi popularreko zinegotzi lanetan. Azkeneko lau urteen ganean eta Durangoren etorkizunaren inguruan egon gara beragaz berba egiten.

*Zelan baloratzen duzu amaitze-ar den legegintzaldi hau?*

Desberdina eta ezohikoa izan da. Nabarmendu behar da legegintzaldi hasieran alkatea hil zela, eta horrek eragina izan duela. Aipatzea da, baita ere, gobernu taldea EAJk zazpi zinegotzigaz osatu duela. 21 zinegotzi garenez, alderdien laguntza behar izan du proiektuak aurrera ateratzeko.

*Aurrekontuei begira, gobernu taldeak aurreko proiektu bitan inbertitu gura duela aurreratu du; San Faustoko zentro zibikoa eta Urki-hegoalde eratzuna. Zer deritzozu? Proiektu garrantzitsuak dira biak. Durangok beste proiektu batzuei ere ekin behar die,*

baina udalak, bere egoera ekonomikoagatik, ezin du gehiago egin; batzuei lehenetasuna eman behar izan zaie. Nahiago genuke guztiok proiektu gehiagotarako dirua egotea, baina, zoritxarrez, hori da egoera.

*Herritar askori eragin die egoera ekonomikoak. Udalak zelan lagundu ahal die?*

Onena gizarte ekintzarako diru gehiago izatea izango litzateke. Egoera lazgarrian dagoen jende askoren berri daukagu. Lana sustatzea ere udalaren zereginetako bat da. Merkatariei eta enpresari txikiei lagundu behar diegu, horrek Durango osoari lagunduko diolako; ekonomia berpizteko beharrean ahalik eta ahalgin handienak egin behar ditugu.

**“Bizitza osoa daroat Durangoren alde lanean, eta oso asebetegarria da”**

**“Trenaren lurperatzea ia amaituta dago. Ez dadila gehiago atzeratu”**

*Iñaki Arriolak esan du ez dela lehenetasunetako bat Euskotrenen egoitza Durangon eraikitzea. Hor konpromiso bat dago. Udalak lehengo Eusko Jaurlaritzagaz egoitza hori Durangon eraikitzea hitzartu zuen, eta horretara konprometitu baziren, oraingo Eusko Jaurlaritzak bete egin behar du sinatutakoa.*

*Zeintzuk dira, alderdi popularren ustez, premia handienak? Batzuk udalaren esku daudenak dira, eta beste batzuk gainetik dauden erakundeenak. Trenaren lurperatzea ezinbestekoa da, adibidez, Durangorentzat. Nik eta beste hainbatek eduki dugu aukera lanak ikusteko, eta duela urte eta erditik amaituta daude. Bidaiariak gelto-kira joateko pasabidea baino*

ez da falta. Durangar guztiak nekatuta gaude epe bat esaten diguten bakoitzean luzatzeaz. Duela urteak amaituta egon beharko litzateke. Ez da kapritxo bat; Durango guztian trafikoa gelditu egingen da. Beste premia bat lana sortzeko behar egitea da, eta babeseko etxebizitza gehiago eraikitzea ere bai. Eskari handia dago.

*Duela 28 urtetik zara zinegotzia Durangon. Zer eman dizu zinegotzi izateak?*

Oso asebetegarria da niretzat. Bizitza guztia daroat Durangoren alde beharrean, eta udalean egotea handia da niretzat. Zinegotzi izan aurretik ere Durangoren alde egin nuen lan, eta ahal izan dudana guztia egin dut beti.

*Hauteskundeetara aurkeztuko zara?*

Oraindik ez dakit. Laster erabakiko dugu, eta emango dugu horren berri.

*Ezker abertzaleak bizi duen egoerari buruz zer iritzi daukazu? Euren estatutuak aurkeztu*

**“Kolektibo baten kideek beste bat sortzen dutenean tentuz ibili behar da”**

eta gero, epaileek erabaki behar dute baimena eman ala ez, eta fiskaltzak; kontua ez da zeresana daukala, bere eginbeharra da hori erabakitzea. Epaileek eta fiskalek erabaki behar dute, eta ni ez naiz inor zer egin beharko litzatekeen esateko. Basagoitigaz bat nator esaten dutenean kolektibo baten kide izan direnek beste bat sortzen dutenean tentuz jokatu behar dela. Ez dakit berrogeialdia den berbarik egokiena, baina 800 eta 1.000 hildako artean izan dira, eta horiek ezin dira goizetik gauera ahaztu. Ez dakit horrek epaileen erabakian eragingo duen, baina eurek erabaki behar dutela, hori argi. ■ A.U.



# KULTURA<sup>></sup>

ARGAZKIGINTZA > ELKARRIZKETA

## “Laneko gaueko txandatik bueltan hurreratu nintzen argazkia egitera”

Kontrol numerikoan, tailerrean, egiten du **Ignacio Condek** lan; elektrikaria da. Azken urteetan, baina, argazkigintzaren harrak harrapatuta dabil, emazteagaz batera. San Blas egunean, goizean goiz, jaiaren prestaketari Condek eginiko argazkiak jaso du San Blas argazki lehiaketaren lehenengo saria



**Argazki lehiaketa batean parte hartu duzun lehenengo aldia da?**

Ez, orain hiru urte inguru hasi nintzen hala-koetan parte hartzen: diseinu grafikoa interesatzen zitzaidanez, lehenengo, kartel lehiaketetara proposamenak bidaltzen hasi nintzen. Geroago, nire emazteak harra sartu zidalako hasi nintzen argazkigintzan gehiago barneratzen. Emazteak ere duela gutxi jaso du Abadiñoko Udalaren 2011ko egutegirako argazki lehiaketaren saria.

**Emaztearen eraginez zaletu zara, beraz, argazkigintzara? Hark harra sartuta...**

Bai, berak sartu zidan harra. Duela gutxi arte ni ez nintzen batere argazkilari ona. Arrantzan joatea gustatzen zait asko, eta arrantzara ateratzen nintzenean hasi nintzen kamera txiki bat aldean eroaten. Handik gutxira, kamera reflex bat eskuratu nuen, eta ia konturatu barik joan nintzen zaletzen.

**Zeure kabuz joan zara ikasten ala ikastaroetan jardundakoa zara?**

Autodidakta izan naiz beti: argazkigintzari buruzko aldizkarietan eta Interneten topatu dudana informazioagaz joan naiz ikasten; sekula ez dut ikastaroetarako denborarik eta motibaziorik eduki. Azkenean lanagatik ezin izan dut joan, baina orain dela gutxi eduki dut ikastaro interesgarri batean izena emateko asmoa. Dena dela, argazkizaleen talderen batean sartzeko gogoak daukat, gehiago ikasi ahal izateko.

**Lehiaketa batean zure argazki bat saritzen duten lehenengo aldia da hau?**

Bai. Lehenago ere aurkeztu izan naiz lehiaketara, baina egia esan sekula ez dut zortehan-

“Orain arte ez dut lehiaketetan zorte handirik eduki, eta benetan poz handia izan da irabaztea”

Lehiaketa irabazi duen argazkiaren berezitasunik handiena argazkian harrapatutako unea bera da, Conderen ustez: laneko gaueko txandatik bueltan, goizaldeko seietan, Ferialekura gerturatzea bururatu izana. Gogorik batere ez zeukala onartu digu argazkizaleak, baina hotz eta gosen arren San Blas azokaren prestaketen argazkiak egitera gerturatu zen.

Azokako ohiko ortuarien, erakusmahaien eta animalien irudia barik, San Blas azokaren bestelako ikuspegia harrapatzea zeukan Gernikan jaiotako Ignacio Conde argazkizaleak helburu. “Hasieran, makroagaz zeozer egitea bururatu zitzaidan”, kontatu digu, baina azkenean ideia hori alboratu eta oraindino eguna argitu barik zegoela joan zen San Blas etako lehiaketarako argazkiak egitera. Prestaketa horietan giro oso polita eta berezia topa-

Goizaldeko seietatik zortziak arte ibili zen Conde Zelaietan zehar argazkiak egiten

dirik eduki. Benetan poztasun handia izan da lehiaketa irabazi izana.

**Pentsatu duzu saria zertan inbertitu?**

Bai, eta ia egina dago inbertsioa, gainera: nire emazteak reflexik ez daukanez, orain arte nik erabili dudana berari emateko asmoa daukat, eta lehiaketako 400 euroekin niretzako berria erosiko dut.

**Zelan bururatu zitzazizun azoka hasi aurreko unean argazkia egitea?**

Laneko gaueko txandatik bueltan, hotza egiten zuen arren eta gose nintzen arren, Ferialekura gerturatzea erabaki nuen. Gero, giroak txundituta, abeltzainen joan-etorriei eta inguruari begira, argazkiak egiteari ekin nion. Benetan polita eta berezia da goizeko giro hori; ikustekoa da... Ur beroagaz garbitzen dituzte behiak ilaran ipinita, eta lurrun berezi batek inguratzen du dena...

**Teknikoki nahiko gaitza dirudi argazkiak: eguna argitu barik zegoen...**

Hasieran, gainera, ez zitzaidan gura nuen argazkia ateratzen, eta hainbat esposizio gaz ibili nintzen aprobak egiten, hauxe atera zen arte. Argazkian agertzen den idiskoaren atzealdean ikusten den distira hori kamioi baten argiena da, tripoderik barik egin nuen, hotzaren hotzez dardaraka nengoen arren. Gero, Photoshop-en baliabide batez argitasun apur bat gehiago eta itzalei kontrastea ematea baino ez nuen egin.

“Giroak txundituta, abeltzainen joan-etorriei eta inguruari begira, argazkiak egiteari ekin nion”

**Egunean zehar ere bueltatu zinen Ferialekura argazki gehiago egitera?**

Bai, hamabietan jaiki eta han ibili nintzen San Blas eguneko argazki gehiago egiten: ganaduari, ortuari eta erakusmahaietara ere egin nitzkien, esaterako, argazkiak, baina lehiaketara zein aurkeztu erabakitzerakoan ez zitzazizkidan hain aproposak iruditu.

**Zertan diharduzu orain lanean?**

Udalak martxoaren 8ko Emakume Langilearen Egunerako antolatutako duen kartel lehiaketarako lana prestatzen dihardut. Argazki batetik abiatuta osatuko dut kartela. ■ I.E.

## Enkoadraketa, argitasuna eta gaia ondo hautatuta

tu zuela kontatu digu Condek, goizaldeko lauretan ekiten diotela azokan parte hartzen duten abeltzainen ganadua eta inguru guztia prestatzeari. Seietatik zortziak arte ibili zen Zelaietan zehar argaz-

kiak egiten. Abeltzainen uragaz garbitzen zituzten bitartean, marruka zebiltzan behiak, joan-etorrian zebiltzan kamioiak... Enkoadraketa, gai eta argitasun bereziko argazkia egin zuen horrela.



ANTZERKIA > EMANALDIA

# Hirutik bost urtera arteko umeei zuzenduriko irudimen mundua

Otsailaren 27an, 17:00etan eta 18:00etan, 'Mondo Flurss' Elorrión

**D**uela urtebete, 2010ean, abiatutako proiektua da Kolore Bitxia taldearena. Ume txikiei zuzenduriko antzerki lanak martxan ipintzeko helburuz abiatu zuten proiektua da, eta *Mondo Flurss* dute urte honetako

laz sorturiko Kolore Bitxia taldearen obra da Arriolan izango dena

lanaren emaitzetako bat. Otsailaren 27an, 17:00etan eta 18:00etan, Elorrioko Arriolan eskainiko dute emanaldia. Aritza Rodriguez zal-dibartarra eta Iñaki Aginaga dira antzezlanoen aktoreak, eta Pako Revueltas zuzendaria.

Ahotan darabilgun *Mondo Flurss* antzezlano bisuala da nagusiki, testu gutxikoa, hiru eta bost urte arteko haurrei zuzendua, egileen berbetan. Plastikozko poltsek elkar ukitzean egiten duten zaratari erreferentzia eginez deitu diote antzezlanoari *Flurss*, eta gure gizartearen isla diren poltsa horietatik eratzen du Kolore Bitxiak imajinaziozko *Mondo* hori.

Zaborretarako koloretako plastiko poltsekin sortzen dute Kolore Bitxia Teatroa-koekitsasoa, eta imajina genezake beste edozein errealtate ere: animaliak eta askotariko objektuak, esaterako.

Zaborretarako plastiko poltsekin eratzen dute obran ageri den mundua

“Gaur egungo kontsumo ereduagaz jarraitzen badugu gertatu dakigukeenari buruzko hausnarketak txikia eta apala” ere bada, egileen berbetan, *Mondo Flurss*.

Umekin sormena eta inguruneagazko begirunea eskolan lantzeko unitate didaktikoa ere diseinatu du antzezlanoagaz batera Kolore Bitxiak taldeak: [www.kolorebitxia.com](http://www.kolorebitxia.com) helbidean ipini dute erabilgai. ■ I.E.



GEURE DURANGALDEA



Miren Amuriza Bertsolaria

## Emakumeok plazara

Nor ez da noizbait kalera irten eta usain edo doinu bereziren bati segika mugitu? Badira aste batzuk irrintzi alai hareej jarraituz plazaraino iritsi nintzela. Hantxe zegoen neska koadrila bat trikiti, txirula, biolin eta kaxoi flamenkoa astinduz uju-ka eta dantzan.

Apur bat haratxoago, hirulau bertsolarik ziharduten kantuan musika-bandaren kioskotik. Baina ez, ez ziren tabakoaren legearen edo politikaren ganean ari; hilerokoarekin izaten doguzen korapilo eta sentimentuei buruz baiziki.

Plaza bueltako arkupeeta batean, neskatila kaskamotz bat zegoen aulki altu batean jarrita. Esku bat gora eta behera zerabilen artean, besteagaz irakurtzen zebilen liburuari eusten eutsan. Bere inguruan borobilean jesarrita, ume eta ez hain ume mordo zegoen adi-adi entzuten.

Arkupearen beste puntan, dozena erdi andrak amaitu barri eben antzerkiari txaloka ari zen jendea; bi edo hiru erdi negarrez emozioaren emozioz.

Plazaren alboko frontoi irekian, beste neska koadrila bat ari zen soka-tiran. Bien bitartean, hiru-lau gazte ezker pareta kolore biziz margotzen ari ziren: lora moreak eta gorriak, tximeletak, izarrak...

Eta zuk, oraindino ez dozu ezagutzen plaza berezi hau? [emakumeokplazara.org](http://emakumeokplazara.org) orrialdean sartzea baino ez daukazu Euskal Herri osoko emakume artista zein kirolarien barri izateko; edo, alderantziz, zeuk eskaintzen dozuna lau haizetara ezagutzera emoteko.

Gorde lotsak eta irten egizu plazara!

IKASTAROA >

## Argazkigintza dokumentalaren gaineko ikastaroa Arruabarrenagaz

Otsailaren 26a arte eman daiteke izena Udako Euskal Unibertsitateak antolatuta Jesus Mari Arruabarrena argazkilaria garaitarrak gidatuko duen argazkigintza ikastaroan. Eibarko Markeskoa jauregian izango dira ikastaroaren saioak, martxoan eta apirilean; martxoaren 1, 8, 15, 22, eta 29an, eta apirilaren 5 eta 12an.

Teoria eta praktika uztartuko dituzte Jesus Mari Arruabarrenak emango duen argazkigintza dokumentalaren gaineko ikastaroan: irudien bitartez errealtatearen kontakizuna egitea da argazkigintza dokumentalaren jomuga. Argazkigintzan jarduteko norbere estiloa bilatzea eta sormena bultzatzea dira, bestetik, ikastaroaren helburuak. ■ I.E.

ERAKUSKETA > KARNABALAK

## Durangoko karnabalen inguruko erakusketa prestatu du Kriskitinek

Durangoko San Agustin kulturgunean ikusgai izango dira asteburuan Kriskitin dantza taldeak bildu dituen jantziak, argazkiak, abestiak eta abar

Kriskitin dantza taldeak antolatuturikoa da joan zen barikutik Durangoko San Agustin kulturguneko sarreran ikusgai dagoen erakusketa. Besteak beste, Hartzaren eta Surrandien Konpartsan baliatzen dituzten jantziak eta maskarak, argazkiak, abestien letrak eta partiturak bildu dituzte erakusketarako.

Gaur, bihar eta etzi ere zabalik izango da San Agustinen erakusketa. Laster Durangaldeko herri guztietan biziko dugun karnabal giroa zabaltzen joateko helburuagaz antolatu du Kriskitin dantza taldeak Durangoko kulturguneko erakusketa.

Jantziak, maskarak, argazkiak eta abestien hitzak, besteak beste

Joan zen barikuan zabaldu zuten erakusketa Durangoko San Agustin kulturgunean, eta asteburu honetan, domeka arte ere ikusgai egongo da. ■ I.E.



## PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

OTSAILAK 25 22:00etan KONTZERTUA. Doan. YOKO OUT aka KF + GHETO

OTSAILAK 26 21:30ean KONTZERTUA. 7-9 euro. NUMEN + DARK + CODE + BLOODLINE

OTSAILAK 27 12:00etan DANTZA IKUSKIZUNA. Doan. ANDALUZIAREN EGUNA

TABIRAKO MUSIKA BANDA + KRISKITIN + CENTRO ANDALUZ

OTSAILAK 27 17:30ean AISIALDIA EUSKARAZ. Doan. OLGETAN. TAILERRAK ETA JOLASAK. BERBARO

MARTXOAK 3 20:00ean BERBERTAN. Doan. Maddalen Iriarte EDURNE BROUARD

Eguneko menua astelehenetik larunbatera Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

www.plateruena.net



## LUCES DE HOLLYWOOD & BROADWAY

I. Bartolome, N. Orbea, M. Pierrugas

Otsailak 26 • 20:00

## EL PROBLEMA

TESTIMONIO DEL PUEBLO SAHARAUI Jordi Ferrer, Pablo Vidal

Udaleko Gizarteintza Saila Otsailak 27 • 18:30

San Agustin KULTUR GUNEA DURANGOKO UDALA


11:00 601 07 76 Irtekalde, 14 Durango

# HITZ

Liburudenda

# 6. AUKERA azoka

OTSAILAREN 25ETIK 27RA • LANDAKO GUNEA



**ORDUTEGIA:**  
 Barikua: 11:00-14:00 / 17:00-21:00  
 Zapatua: 10:00-14:00 / 17:00-21:00  
 Domeka: 11:00-14:00 / 17:00-19:00



# “Ekoizleek baliabideak behar dituzte duintasunez lan egiteko”



Kepa Aginako

Juan Mari Totorika Urkiola landa garapen elkarteko gerenteagaz eta Igor Arkarazo Abadiñoko Ezker Abertzaleko kideagaz batu gara ‘Baserritik plazara’ ekimenari buruz gehiago jakiteko. Baserritar ekoizleei babesa eskaini gura die ekimenak.

**Non dauka egitasmoa honek sorburua?**

**Igor Arkarazo:** Abadiñoko Ezker Abertzaleak lan talde bat sortu zuen baserri munduaren gaineko hausnarketa egiteko. Durangaldeko merkatuen sailkapena egiterakoan erabilitako irizpideek arazoak sortzen zituztela uste genuen. Beste lanketa modu batez osatutako proposamena Urkiola landa garapen elkartera ekarri, eta horrela garatu zen orain aurkezten dugun ekimena.

**Zehazki zer arazo identifikatu zenituzten?**

**I.A.:** Alde batetik, baserritar ekoizleen egoera eta irudia hobetzeko diskriminazio positibo egiteko beharrezkoak ikusten genuen. Bestetik, birsaltzaileek ekoizleei eragiten dieten kalteari aurre egin gura genuen.

**Zelan gauzatuko duzue hori guztia?**

**Juan Mari Totorika:** Egitasmorako sortu dugun logotipoa daukaten standek Durangaldeko baserritarrek ekoiztutako produktuak bakarrik salduko dituzte, eta sal-

tzaileak ekoizleak izango dira. Postu horietan ekoizleen eta produktuen gaineko informazioa ere ikusgai egongo da; alde horretatik, ahalik eta transperentzia handiena lortu gura dugu. Logotipo bateratu horregaz, ekoizleen jarduera duindu gura dugu eta babesa eskaini gura diegu. Atzean elkar-

ra bertako ekoizleen produktuak erostera, baina uste ona ez da nahikoa; erosleari esan egin behar zaio, jakinarazi, nor saltzen dituen berak ekoiztutako produktuak. Birsaltzailearena, zoritxarrez, ohiko jarduera da; hedatuta dago eskualdean zein hemendik kanpora.

**“Ekoizle gazte berriei baliabideak eskaini behar zaizkie euren jarduera duintasunez garatzeko; bestela, ez dira animatuko eta merkatua apurka-apurka desagertzen joango da”**

te bat dago, eta egitasmooaren jarraipena egin eta funtzionamendua zainduko du. Horrek sinesgarritasuna ematen du.

**Eta erosleei konfiantza handiagoa ematen die.**

**I. A.:** Hori da. azken batean, ez badakizu zer erosten duzun, horren gaineko informaziorik ez badago eskuragarri, iruzurraren parte bihurtzen zara konturatu barik. Kontsumitzailea bere uste onenagaz joan daiteke merkatu-

**Irudi berriari garrantzia ematen diozue.**

**I. A.:** Bai, ekoizleak eta, batez ere, kontsumitzaileak irudi horregaz identifikatuta sentitu daitezen gura dugu. Irudia ikusi eta postu horretan zer jasoko duten garbi jakin dezatela.

**Egitasmooa non zabaldu duzue?**

**J.M.T.:** Egitasmooa Durangaldeko udal guztietara bidali dugu. Abadiñok baiezkoa eman du. Zornotzak gure ekimenak zer bide har-

tzen duen ikusi gura du lehenengo eta gero erabakiko du. Iurretak eta Elorriok ere antzerako zer edo zer adierazi digute. Eskualdeko beste udalen gaineko berririk ez dugu oraindik jaso.

**I. A.:** Udalei gauza bakarra eskatzen zaie; proposamena onartzea, alde daudela esatea, denen arteko proiektu amankomuna bihurtu dadin. Udalei ez die ia kosturik suposatuko; muntaia eta mantenua bakarrik. Gure ustez, ekoizleei eta kontsumitzaileei ez ezik, udalerriei ere onurak ekarriko dizkie egitasmooak, eta konpromiso hori bilatzen dugu.

**Egitasmooa datorren astean bertan eroango duzue kalera.**

**J.M.T.:** Bai, Abadiñoko azokan datorren eguaztenean hasiko gara. Barikuan, berriz, Eroski supermerkatuaren aparkalekuan, sarra bien artean, azoka inauguratuko dugu. Hileko lehenengo bari-kuetan izango da. Kontsumitzaileen erosteko ohiturakasko aldatu dira azken urteetan, eta espazio berriak bilatzerakoan hori oso kontuan izan behar da.

**“Birsaltzaileei aurre egiteko tresna da eta kontsumitzaileei bermea eskainiko die erosterakoan”**


**Zelakoa da baserritar ekoizleen egoera salmenta zuzenari dagokionez?**

**I.A.:** Ez da ona, eta horregatik egin behar da ahalegin berezia berpiztu dadin. Ekoizle gazte berriei euren jarduera duintasunez garatzeko baliabideak eskaini ezik, ez dira animatuko; ezer egin ezik, merkatu horiek apurka-apurka desagertu egingo dira.

**“Aurrez aurreko salmentagaz batera, Internet bidezkoa zelan garatu aztertzen ere bagabiltza”**

**Salmenta zuzena Interneten bitartez bideratzea aurreikusit duzue?**

**J.M.T.:** Bagabiltza eremu hori aztertzen. Gure webgunean laster ‘Denda’ izeneko atala sortuko dugu, eta bertako produktuenerakusleioa izango da. Bestalde, hainbat baserritar prest daude on-line salmenta amankomuna egiteko. Internet gehienon esku-eragon daitekeen hedabidea da eta, beraz, erakusleio oso ona eta aprobetxagarria da. Horregatik gabiltza bide horretan ere behar-rean. Hala ere, ekoizleen eta erosleen arteko aurrez aurreko hartu-emanari ere garrantzia handia ematen diogu. ■ J.D.



## “Merkatuen kontrolean eta dinamizazioan lan egitea da udalei eskatzen dieguna”

Atxarte Gazta ekoizten du Abadiñon Patxi Solanak, eta Matienako eta Durangoko merkatuetan egoten da.

### Zer merkatutan hartzen duzu zuk parte?

Traña-Matienako eguaztenetako merkatuan eta zapatuetako Durangokoan egoten naiz. Zazpi-zortzi urte daramatzat gazta egiten eta merkatuetara joaten.

### Zer zailtasun daukazue ekoizle txikiek?

Hainbat gairen eraginez sorturikoa da arazoa; batetik, gainerako arloei bezala gureari ere eragiten dien egoera ekonomikoa dago. Bestetik, merkatalgune handien eragina, eta erosteko ohituretan gertaturiko aldaketak ere kaltetzen gaitu. Produktuen kalitatean eta ekoizlearekiko gertutasunean ere badauka eragina horrek.

### Merkatuei dagokienez, zer arazo edukitzen duzue?

Bi egoera dira Abadiñokoa eta Durangokoa. Biak udalaren ardurako merkatuak diren arren, egoe-

ra oso desberdinak bizi ditugu bietan. Matienan udalak badarama kontrola, baina Durangon ez dago beharrezko kontrolik: birsalmementa merkatu bilakatzen dabil Durangokoa.

### Merkatu bietako arazoa da, baina, birsalmementa.

Bai. Saltzen duten produktuaren ekoizle ez direnek sortzen digute arazo handiena. Ortuarien alorrean gertatzen da birsalmementa gehien: sasoiako ez diren produktuak saltzeko produktuak erosi eta saltzen ditu hainbatek. Sasoi honetan, esaterako, gure ortuetan azak eta letxuga txikiak baino ezin dira hazi. Badaude merkatuetan, eurek ortuetan ekoizten dutenagaz batera, Merkabilbaon edo beste denda batean erositako ortuariak saltzen dituzten ekoizleak. Lokalak eta lizentziak ordaintzen dituzten dendariei ere kompetentzia desleiala egiten diete.

### Zelan erantzuten du kasu horietan kontsumitzaileak?

Merkatalgune batean eskuratu ditzakeen produktuak topatuko baditu, merkatura joateari zentzurik ez dio ikusten kontsumitzaile askok. Merkatalgune handi batean salduko dizkizutenak lakoak badira produktuak, merkatura joateak zentzua galtzen du.

### Zein da udalei egiten diezuen eskakizun nagusia?

Oinarrian, udalei konpromisoa eskatzea da beharrezko ikusten duguna: birsalmementa egiten duten horiek kontrolatzeko sistemak ezarri ditzatela, batetik. Aldi berean, merkatuak dinamizatzeko esfortzua ere eskatzen diegu udalei. Gu prest gaude horretan laguntzeko eta ekintza bereziak antolatzeko; esaterako, merkaturan lantzean behin gaztaren, txakolinaren eta piperraren eguna antolatzeko. ■ I.E.



## “Erosleen ohiturak aldatu egin dira, eta eremu berriak bilatzea garrantzitsua da”

Patxi Bazeta abadiñarrak ilusioz hartu du egitasmoa. Ekoizle direnentzat sostengu garrantzitsua dela dio.

### Birsalmementa egiten dutenek kalte handia eragiten dizuete?

Birsalmementa geratu beharra dago, zelan edo halan. Abadiñon, Traña-Matienan, bat egon ohi da, baina Durangokoa lotsagarria da; bost edo sei daude. Bidegabeko lehia egiten dute. Udaletxera hainbat bider joan gara hori salatzerako, baina orain arte ez dute ezer egin.

### Zelan hartu duzu Urkiola lantza garapen elkartearen egitasmoa?

Ilusioz hartu dut. Durangalde osorako baliagarria izan daitekeela uste dut. Logotipoagaz, kontsumitzaileek nori zer erosten dioten jakingo dute. Orain arte ez zegoen ezelan erregulatuta, eta egin beharra zegoen; aurrepausua da. Era berean, birsalmementari aurre egiteko ere balioko du. Ahal dela, birsalmementa praktikatzen dutenak

alboratu egin behar dira azoketatik; modu horretara saldu gura duenak, denda bat ipini dezala.

### Eroskiren apartalakeluan azoka sortzea zer iruditzen zaizu?

Oso ondo. Jendearen eta, beraz, erosleen ohiturak aldatu egin dira. Plazara geroago eta jende gutxiago etortzen da, eta eremu berrietan probatu beharra dago. Barikuetan supermerkatu 5.000 bat lagun joaten direla diote; bostetik bat merkatura bisitan etorriko balitz, ederto legoke!

### Zuzeneko salmenta da baserri-tar ekoizleen etorkizuna?

Udan etxetik bertatik saltzen dut produktuen %50. Horrez gainera, Abadiñoko eta Durangoko azokara ere joaten naiz, eta beste pare bat dendariri eta tabernariri ere saltzen diot. Baina, bai, oro har salmenta zuzena da etorkizuna: saldu eta poltsikora.

### Kontsumitzaileei sasoiaren sasoi-ko produktuak zeintzuk diren ere jakinarazi gura zaie.

Aurtengo negua gogorra izan da; hotz egin du eta lainotuta egon da. Orain erosgai ipintzen ditugun produktuak hauek dira: azak, zerbak, porruak, zazenarioak, letxugak eta perrexila.

### Eta posturen batean tomateak topatzen badituz?

Garbi esanda, ez da hemengoa. Beste hainbeste, baba beltzekin eta ilarrekin ere. Azenarioak ere, orri freskoak baditu ez da hemengoa izango. Gainera, birsalmementa alderatuta, guk produktu gutxiago izaten ditugu postuan, sasoiakoak bakarrik, eta kontsumitzaileen aurrean geu geratzen gara txarto. Ez hori bakarrik: erosleari birsalmementa-ko produktuak etxepeko denda aurkitu ditzakela esanez gero, ez da berriro etorriko. ■ J.D.



Hauxe da egitasmoagaz bat egin duten postuetan ikusi ahalko den logotipoa, baserritik plazara ibiliko den barraskiloa. Irudiari garrantzia handia ematen diote. Ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko hartu-eman eta konfiantza sendotzeko balioko du.

## EKOIZLEAK

**Izena:** Milagros Amillategi  
**Nongoa:** Mallabia  
**Produktu nagusia:** Ortuariak  
**Produktzio mota:** Tradizionala

**Izena:** Pilar Mallabia  
**Nongoa:** Mallabia  
**Produktu nagusia:** Ortuariak eta frutak  
**Produktzio mota:** Tradizionala

**Izena:** Xabat Osa  
**Nongoa:** Mallabia  
**Produktu nagusia:** Ogia, gozogintza eta euskal pastela  
**Produktzio mota:** Tradizionala

**Izena:** Arantza Zubia  
**Nongoa:** Mallabia  
**Produktu nagusia:** Ortuariak eta fruta  
**Produktzio mota:** Tradizionala

**Izena:** Ilart Bazeta  
**Nongoa:** Abadiño  
**Produktu nagusia:** Euskal baserri ortuariak eta landareak  
**Produktzio mota:** Ekologikora bidean

**Izena:** Jaime Arbulu  
**Nongoa:** Elorrio  
**Produktu nagusia:** Ortuariak  
**Produktzio mota:** Tradizionala, integratua eta hidroponikoa

**Izena:** Gema Agirre  
**Nongoa:** Abadiño  
**Produktu nagusia:** Euskal Baserri ortuariak eta landareak  
**Produktzio mota:** Tradizionala

**Izena:** Alicia Monedero  
**Nongoa:** Abadiño  
**Produktu nagusia:** Idiazabal gazta  
**Produktzio mota:** Tradizionala

**Izena:** C.B. Unzalu Ingunza  
**Nongoa:** Abadiño  
**Produktu nagusia:** Idiazabal gazta  
**Produktzio mota:** Tradizionala

**Izena:** Igor Mendiolagarai  
**Nongoa:** Berriz  
**Produktuak:** Ortuariak eta frutak  
**Produktzio mota:** Ekologikora bidean

**Izena:** Jose Luis Gomez  
**Nongoa:** Elorrio  
**Produktu nagusia:** Bizkaiko txakolina  
**Produktzio mota:** Integraturako bidean


**Izena:** Sonia Isasi  
**Nongoa:** Iurreta  
**Produktuak:** Bizkaiko sagardoa, txakolina, ortuariak eta fruta  
**Produktzio mota:** Tradizionala

# AZOKA BERRIA

**DURANGALDEKO BASERRIKO PRODUKTUEN SALMENTA ZUZENA**

Hileko lehenengo ostiraletan Abadiñoko Eroski Hipermerkatuaren apartalakuan 17:00etatik 21:00etara

**martxoak 4**  
lehenengo ostirala



*gure lana, zure jana!*

# IRITZIA >

gutunak@anboto.org

## Gutunak @

### Erralde, lau urte (Eskoriatza, sei urte)

Lau urte pasa ditugu bidea egiten, lau urte elkarlana sustatzen, lau urte bideragarritasuna demostratzen, lau urte koherentziari eusten, lau urte oztopoak gainditzen. Eta lau urte pasa dira lehengo lekuan aurkitzeko ere, ideien eta proiektuaren kontra azpijokoan murgiltzeko, proiektua desorekatzen ahalgintzeko...

2005eko otsailaren 9a zen, Eskoriatzako Ibarraundi jauregian udalak jardunaldi batzuk antolatu zituen, eta beste hizlari batzuen artean bi albaiterok Zabalegi Forotik defendatzen genituen ideiak azaldu behar genituen, -kasu hartan, Oñatiko Zubillaga hiltegiaren alde, hiltegia ixteko zeuden asmoak eta interesak handiak baitziren-. Eguerdian deitu zidan lagunak esanez, Eskoriatzan jardunez gero lanpostua galtzeko arriskua zeukala adierazi ziola bere goragokoak. Nik ere banekien zer edukiko nuen, eta zer eduki nuen ideia haiek defendatzen azaldu nintzenez. Kultur etxea beteta zegoen eta azkenean ere gure ideiak azaldu egin ziren. Zenbait albaitarik, baserritarrek, harakinek eta sektoreko hainbat pertsonak bi txosten sinatu genituen eta halaxe plazaratu genituen gure irizpideak eta gogoetak.

Bidea, baina, ez zen batere erraza izan. Agintean zeuden oso pertsona gutxi entzun nahi zituzten ideia eta gogoeta haiek. Beste askok eta askok esaten ziguten ezin zela ezer egin, sistema horrelakoa zela, alferrik ari ginela. Beti gertatzen den bezala, askoz ere erosoagoa zen joera nagusiari jarraitzea, eta sistema mantentzea. Ez dakit orduan elkartu ginen pertsonak ezker-tiarrak, eskuindarrak edo zer ginen; agian, soilik errebeldeak. Ginea ginela, ez genuen onartzen okelaren eta hiltegien esparruan, batez ere, baserritarrei eta harakinei inposatu nahi zitzaizkien ereduak.

2005eko udan Durangoko eskualde-hiltegia itxi zuten. Hiltegia berriro ireki behar zela eta, gehienbat Durangaldeko udalerriki partaile zirela, Erralde sortu zen. 2006ko udan eskaini zituzten Erralderen kudeaketa.

2007ko otsailaren 12an zabaldu zen Erralde Hiltegia. Hasieratik nire erronka nagusia baserritarren, artzainen eta bertoko produktuaren aldeko apustua egiten duten harakinen arteko elkarlana bultzatzea izan zen. Hiltegia, hasiera-hasieratik, sektorearen alde traktore-efektua egingo zuen erreminta modura erabili dugu. Elikaduraren eta okelaren inguruan gogoetak egiteko erreminta ere izan da enpresa bera, eta Euskal Herrian 'Elikadura Subiranotasun' kontzeptuari bultzada bat emateko ere erabili da Erralde Hiltegia. Baina nola eraman litezke aurrera ideia batzuk, ezarrita dagoen sistemaren kontra? Bada, aurrera eraman nahi duzun horretan bete-betean sinesten duzula, defendatzen dituzun ideien konfiantza eta segurtasuna izanda. Baina, badago beste derrigorrezko printzipio bat ere: koherentzia eta ideiekiko leialtasuna. Edozein mezuz, aldaketa... bultzatzeko derrigorrezkoa da koherentzia hori. Horrek ez du esan nahi norberaren ideiak bakarrik edo onenak direnik, ez. Ideiak, zenbat eta kontrajarrigoak izan, orduan eta hobeto; zenbat eta eztabaidatuagoak izan, orduan eta hobeto... argudiatuagoak direlako.

Zer bihurtu dira, gizartea ordezkatzeko sortu ziren hainbat egitura? Gogoetarako gune ala interes partikular batzuk ordezkatzeko dituzten gune? Hortxe dago eta zegoen hiltegiaren auzia

ulertzeko kakoa. Hau da, norberaren interesak defendatu bes-teenak kontuan eduki gabe, ala denen interesak babestu.

Hasi orduko, ezagun batek honelaxe adierazi zidan: ez dakit zergatia, baina zuen proiektuaren kontra dago gure alderdi politikoa. Orain, berriz, lagun batek beste zenbaiten azpijokoaz ohar-tarazi dit. Nor? Zein? Urteak igaro ahala konturatu naiz pertsona askok eduki behar duten sufrimenduak, ez baitira baliatzen ideiez edota koherentziaz gizarteari begira aritzeko, eta ezin hori obediencia ezkatzen dute edo interes pertsonalak estrategi maltzurretan gauzatzen.

Alabaina, 18 langilek gerentea buru dutela hasieratik enpresa bat errentagarri egiten dutenean, bai sozialki, baina baita ekonomikoki ere, zer gertatzen da? Nola arbuiatu eta estali mezua? Nola ukatu Erralde hiltegiak enpresa bezala 645.030 euroko marjina industrial duela 2010ean urtean? Eta nahiz eta, adibidez, egoitzen alogeretan eta konponketetan 2010ean 191.045 euroko kostuak eduki, nahiz eta beste gastu asko murriztu behar direnak eduki, Erralde hiltegia enpresa bezala autosufizientea da. Bai: bideragarria da. Beraz, pentsa zer izango litzatekeen Erralderen kontzeptua azpiegitura berri batzuetan, zatitze-gelak eta hiltegia bera bateratzen direnean... Horrela, bada, zer lekutan geratzen dira lehen sektoreari bultzada emateko sortu diren hainbat eragile edo enpresa, euron eraginkortasuna merkatuan hain murrizta denean? Urrutiei joatea izan al da gure akatsa?

Erralde Hiltegia Bizkaian lehen sektorearentzako funtsezko eta estrategiko bihurtu dugu. Estatu guztian baserritarrei eta artzainei gehien ordaintzen dien hiltegia da, erreferentea. Harakinekin sinergiak sustatu ditugu, inongo laguntza ekonomikorik hartu gabe jardun dugu merkatuan eta jatetxe-arloan bertoko produktuaren kontsumoa bultzatu dugu. Hori guztiori egiteko, derrigorrezkoa da proiektua bera errentagarria izatea. Eta errentagarria izanik, orduantxe bultzada genezake geure funtzio publiko merkatuan, ez alderantziz. Ikastetxeetan eta ospitaleetan bertoko produktuaren aldeko apustua egiteko mezuari ere eutsi diogu, eta hori ere garrantzitsua da. Enpresaren akuilu garenok, enpresa aurrera atera dugunok, sektorearekin bat egin eta politika eginez, inoiz baino harroago gaudenean egin dugun lanarekin, egoera xeble baten aurrean aurkitzen gara. Agian gerezia eskaini zitzaidanean ez zen sinesten norairisteko kapaz ginen?

Nire lana gerente moduan, itsasontziaren norabidea zuzen mantentzea izan da. Helburua: baserritarrei, artzainei laguntzea, eta horretarako harakinekin, sukaldariekin... elkarlanean jardutea beharrezkoa dela garbi eduki dut. Horrela egiten baitira proiektuak errentagarri (batez ere lehen sektorean), sinergiak sortuz. Eta sinergiak sortzeko derrigorrezkoa da koherentzia edukitzea, koherenteak izatea. Eta koherentzia ikusteko denbora derrigorrezkoa da. Eskoriatzan ospatutako batzar hartatik badira urteak, denbora pasa da.

Eskoriatzara joateko mehatxuak jaso zituen albaitari eta lagunak askotan esaten dit: egindako ibilbidea eginda, nola zaude te oraindik ere hiltegi zaharrea? Agian, Eskoriatzan izan ginenon errebeldia falta da inguruan. Denborak guztia agertzen du.

Eneko Egibar Artola (Erralde Hiltegiako gerentea)

### Sei hankako mahaia



Karmen Sampedro EA

### Tonbola solidarioa

Aurten ere, beste urte batzuetan bezala, otsailean, Manos Unidas-ek Gosearen Aurkako Kanpaina antolatu du. Manos Unidas gobernuz kanpoko erakundea da. Bere lana, herrialde pobreen garapenerako proiektuak egitea da. Zaldirako herria aspaldi dabil kanpaina horretan parte hartzen eta laguntzen. Hemen, herrian, tonbola bat egoten da asteburu batean. Aurten, otsailaren 11, 12 eta 13an izan da. Orain dela 30 urte hasi ginen gauza txiki batekin elizpean; ordu pare bat bakarrik, domekan. Orain oso gauza handia eta polita da, pertsona askok ilusioz parte hartzen dutelako.

Tonbola hau antolatzeko eta prestatzeko jende pila bat inplikatu da. Emakumeen talde bik urte osoan zehar egiten dute lan. Astero elkartzen dira mantelak, poltsak, panpinak... egiteko. Beste emakume batzuek euren etxetan egiten dituzte lanak, jertseak, mermeladak... Kantabriatik ere ailegatzen da laguntza!

Lan honetaz gain enpresei laguntza eskatzen diete, bai dirua bai objektuak tonbolan ipintzeko: kafea, elektrotresnak, landerak...

Herriko pertsona batek lokal bat uzten du tonbola ipintzeko. Gazte talde bat izaten da arduraduna tonbola montatzeko. Aste batean gau batzuk ematen dituzte lanean dena prest utzi arte, eta bariku arratsaldean zabaltzen da. Barikua, zapatua eta domeka, goizez eta arratsaldean.

Krisian gaude eta beldur apur bat eduki dute, ia ondo joango zen ala gutxi aterako zuten. Baina, oso ondo irten da, primeran; jendeak iaz baino gehiago parte hartu du, eta 9.300 euro batu dira.

Diru horren erdia Manos Unidas ematen zaio. Beste erdia Zaldirako hiru misiolarien artean banatzen da.

Eskerrik asko denoi eta animo, aurrera!

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa

**anboto**  
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkartea  
2011ko otsailaren 25a - 9. urtea - 405 zk.

Laguntzailea: BFA DFB Bizkaito Foru Aldundia

Eta honako udal guztiak:

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea.  
**Erredakzio burua:** Joseba Derteano.  
**Administrazioa:** Itziar Belar, Miren Abasolo.  
**Publizitatea:** Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde, Aritz Maldonado.  
**Maketazioa:** Ainhoa Arizmendiarieta.  
**Testu zuzentzailea:** Igor Elortza.  
**Argazkilariak:** Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

# KIROLAK >

## “Urte batzuen buruan Enpresen Ligan egongo da Master Jai ere”



Eskupilota koadro propioa osatu gabe utziko du pilota Totorikak. Hala ere, “amets” hori Master Jaik beteko diola uste du. K. Aginako

**AITOR  
TOTORIKAGUENA  
ARANA**

**Jaioterria:**

Durango

**Adina:**

49 urte

**Ibilbidea:**

- 8 urtegi hasi zen pilotan jokatzeko  
- 15 urtegi debutatu zuen  
- 11 urtean Estatu Batuetan jokatu zuen  
- 21 urte darama pilota munduko enpresari lanetan. Hiru modalitateak ezagutu ditu: Eskuz, palan eta zestean.

### Zer helburu ditu Master Jaik? Enpresen ligan sartzeko asmorik?

Lehenengo eta behin, enpresa indartzea gura da; zeozer lortzeko, gauzak ondo egin behar dira. Aurrerago liga horretan sartzeko asmoa badaukagu; azken finean, pilotari onak badituzu, zugaz kontatu beharko dute. Epe ez oso luzera helburu hori du Master Jaik. Bestalde, hiru urte hauetako balantzea positiboa da. Traba ugari izan ditugu; hainbatek ez nau gustuko. Ekonomikoki ez da oso errentagarria izan, krisiak bete-betean kolpatu gaituelako, baina, hala ere, aurrera egitea lortu dugu. Etorkizun ona du proiektuak. Lan eta diru askori esker lortu dugu hona heltzea.

Bizitza osoa pilotari loturik eman ondoren, agur esango dio Aitor Totorikak; onenean utzi duela iritzi dio, gainera; “goian” dagoe-nean, hain zuzen ere. Hala ere, “gutziz” ez ei du utziko; frontoira joaten jarraituko du.

### Pilotaren Mundua utziko duzula iragarri duzu. Arrazoiak azaldu ditzakezu?

21 urte daramatzat mundu honetan, eta nahiko erreta nago jada. 21 urte eta gero, lagun asko egiten dituzu, baina etsaiak ere bai; zeure taldetxoak ere egiten duzu denbora horretan. Alde onak eta txarrak begiratu, eta pilota utzea ebatzi dut. Zerikusuzuzena ez duten gaiekin jarraituko dut orain: telebista, Filipinetako frontoiaren kontua... Gutziontzat onena dela uste dut; goian nagoela uzten dut enpresa, eta ziur naiz Mikel Plazak ondo beteko duela bere lana. Esku onetan uzten dut enpresa.

### Gaitza egin zaizu erabakia hartzea?

8 urtegi hasi nintzen pilotan jolasten, eta 15 urtegi debutatu nuen. Gerora, 11 urtean Estatu Batuetan jokatu nuen. Ondoren, 21 urte egin ditut enpresari lanetan. Gutzira, 41 urte dira pilota munduan, beraz. Pilota mundua bera ez dut gutziz utziko: frontoietara joaten jarraituko dut, 25 urterako lizentzia dut Filipinetako frontoi batean; telebistako

programetan egongo naiz, Interneteko zuzenekoetan ere bai... Uzten dudana, eta gogoz kontrako erabakia da, pilotaren kudeaketa zuzen hori da.

“Egungoak enpresari hutsak dira, ez dute hartu-emanik pilotariekin”

### Zertan aldatu da pilota urte hauetan guztietan?

Gutziz. Ni hasi nintzenean, enpresariak pilota mundukoak ziren: Ercilla, Angel Iza, piedratarrak... Euretako asko pilotan ibilitakoak ziren; egun osoa pilotalekuan igarotzen zutenak eta kirola ezagutzen zutenak. Egungo enpresariak, ostera, enpresari hutsak izatera mugatzen dira. Diruagatik eta audientziagatik bakarrik mugitzen dira; oso hartu-eman txikia daukate pilotariekin, eta niri, berriz, hori da gehien gustatu zaidana beti.

Arlo honetan asko aldatu da pilota, eta pertsonalki, gurago dut lehengo pilota.

### Bereziki palari eta zestari eragin dion krisiak. Hortan eskupilotak eraginik izan duela uste duzu?

Bai. Futbolagaz konparatu daitezke: futbola gainerako kirolak “hiltzen” dabil. Saskibaloia da eusten dion bakarra, nazioarteko erakarpina daukan kirola delako. Estatu mailako indarra izan arren, eskubaloia, areto-futbola eta horrelako kirolak gutxiengoentzako dira. Eskupilotarekin geratzen dabilena antzekoa da: hau indartzeko helburuagaz, eskupilota erremintari ikusleak kentzen ari da. Jendeak eskupilota ikustea bakarrik gura dute.

### Zer eragin du krisi hau?

Nire ustez, jendearen ohitura aldaketak. Jendea askoz gutxiago joaten da pilotalekura. Eskupilotaren eragina ere hor dago; azken 15 urteetan asteko 3-4 partidugaz bonbardatu gaituzte telebistan. Guk, adibidez, Euskal

Telebistarako 15 partidu eskaintzen ditugu urtean. Horrek min handia eragin du. Guk telebistarako ekoiztetxea sortu dugu, baita Internetarako ataria ere. Internet ez da etorkizuna, oraina baizik.

### Hortaz, giltza Internet da?

Krisia orokorra da; irteteko bide bakarra, ostera, planteamendu berriak direla uste dut. Pilotak garai berrietara egokitu behar du. Aldeketak egin behar dituzu, bestela hilik zaude.

### Hainbat urtean egon zara esku pilotatik kanpora. Zergatik itzuli zara?

Asegarcetik irten nintzenetik, beti eduki dut buruan eskupilota koadro propioa izatea. Pertsonalki ez dut amets hori beteko, baina enpresak beteko du, ziur. Master Jai proiektu horretan dabil burubelari. Hile batzuk atzeratuko da aurkezpena, baina Master Jaik eskupilotan jardungo du.

### Aurreratu dezakezu zeozer?

Gutzira, 22 pilotari inguruko zerrenda bat dugu. Hitzarturik ditugu, besteak beste, Urberuaga, Koka, Rober Uriarte, Asier Berasaluze... Beste 6-8 ditugu hitzarturik, baina kontratua indarrean daukatenez ezin dit aurreratu nortzuk diren. Profil ezberdina betetzen duten jokariak egongo dira. Master Jaik talde garrantzitsua izango duela aurreratu dezaket.

“Pilotak garai berrietara egokitu beharra du; aldatu ezean hilik zaude”

“Pilotak guztia eman dit, baita guztia kendu ere. Ezagutu ditudan lagunekin geratzen naiz”

### Master Jai utzita, zer asmo duzu?

Filipinetako Meridien Vista Garming zuzentzera mugatuko naiz, baita Bizkaia Jai Alai pilotalekua kudeatzeaz ere. Urtean 6-7 aldiz joaten naiz hara, eta orain hori egiten jarraituko dut. Hemengo frontoiak kudeatzeaz, aldiz, utzi egingo diot. Telebistan eta Interneten zentratuko naiz, gehien bat. Familiari ere arreta berezia eskainiko diot.

### Zer da pilota zuretzat?

Dena. Dena eman dit, eta guztia kendu dit. Pilotagatik naiz naitzen modukoa. Jende ona eta txarra ezagutu dut pilotari esker. Jokalari jardun nuen urteekin geratzen naiz batez ere, eta ezagutu ditudan lagun guztiekin. Momentu txarrak ere pasatu ditudan arren, une onekin gogoratuko naiz. ■ A.M.

# Promesen distira ikusgai Biharko Izarrak lehian

Eskualdeko lau gaztek parte hartuko dute: Jon Landaburu eta Aitor Azpiri elorriarrek eta Andoni Aldape eta Ander Olalde mallabitarrek



Pilotariak enpresetako begiraleen arreta eurenaganatzen ahaleginduko dira. Julen Uribe

Pilota profesionalean jardutea amesten dutenen ordua heldu da. Gaurtik hasita, 24 pilotari gaztek elkarrekin lehiatuko dute Mallabiako Biharko Izarrak txapelketan. Lehiaketak zortzigarren aldia du aurten. 2011ko edizio honetan Durangaldeko lau gaztek parte hartuko dute: Jon Landaburu eta Aitor Azpiri elorriarrek eta Andoni Aldape eta Ander Olalde mallabitarrek. Antolatzaileetako bat den Carlos Garcianen berbetan, faboritoetako bi Yoldi eta Linzoain nafarrak izango dira. Hala ere, indartsuenak nortzuk diren txapelketak aurrera egin ahala ikusiko dela pentsatzen du.

Biharko Izarrak izen handiko txapelketa da. Izan ere, gaur egun profesionalean dabilen hainbat pilotarik parte hartu dute bertan: Asier Berasaluze eta Ibai Zabala berriztarrek eta Iñaki Larrañagak eta Mikel Beroizek, besteak beste. Azken adibidea iazko txapela jantzi zuen David Merino errioxarra da. Iazko txapela jantzi orduko sina-

**Adituek Yoldi eta Linzoain jotzen dituzte faboritotzat, hasiera batean behintzat**

**Jokatze sistema urterokoa da. Bi multzotan banatuta, denak denen kontra**

turik zuen kontratua Aspegaz. Txapela jantzeko lehiatzeaz gainera, pilotariak enpresetako begiraleen arreta eurenaganatzea bilatuko dute, beraz.

**Urteroko joko sistema**  
Martitzeneko aurkezpenaren ondoren, lehiaren txanda heldu da. Txapelketa jokatze sistema urterokoa da. Multzo bitan banatuta, denak denen kontra jokatuko dute. Azkenean, garaipekin eta aldeko tantorik gehien dituzten aurrelariak eta atzelariak igaroko dira finalera. Finala ekain hasieran jokatuko da. Atzo jokatu ziren ligaxkako lehenengo partidua. Lehenengo taldeko Ezkurda-Olalde eta Albarado-Diez bikoteek elkarren kontra jokatu zuten. Bigarren taldean, berriz, Victor-Landaburu eta Mendizabal-Aretxabaleta bikoteak elkarren aurka lehiatuko dira.

Lau t'erdiko txapelketa txiki bat ere jokatuko dute txapelketako finalerdiekin batera. ■ A.M.

## Gonzalez eta Martin, lehenengo txapelaren bila

Nagusien 1. mailako finalaz gainera, beste finalerdiak ere jokatuko dituzte asteburuan

Abadiñoako Tornosolo trinketeak Bizkaiko eskuzko txapelketako finalerdiak hartuko ditu asteburuan zehar, baina lehenengo finala ere jokatuko dute domekan. Tornosolo taldeko Gonzalez eta Martinek Kurene taldeko Gordon eta Ugarte izango dituzte aurrez aurre.

**Finalak martxoaren 4an ikusi ahal izango dira Abadiñoako trinketean, 18:00etatik aurrera**

Gaur bertan, 18:30ean, nagusien 2. mailako finalerdiak ospatuko dira. Lehenik, bertako Atxarte taldeko bi bikote lehiatuko dira: Arabiourrutia-Aspuru eta Bizkarra-Badiola. Gero, Garaizabal eta Garitagoitia mallabitarrek Leako Gabiola eta Muñozgurenaren kontra jokatuko dute.

Zapatuan Lekeition izango dira gazte mailako finalerdiak, eta domekan, nagusien mailako finalagaz batera, 10:30ean jokatuko dira kadeteenak Abadiñon. Finalak martxoaren 4an ikusi ahal izango dira Abadiñon, 18:00etatik aurrera. ■ M.O.

**Agustin Alkorta**  
•Futbol entrenatzailea



### Zorte on, Mendi!

Joan den astean, albiste pozgarri bat entzun nuen: Jose Luis Mendilibar bueltatu da berriz ere aukietara. Osasunak berreskuratu du Zaldirako "misterra". Bere debutean, aurten goitiki dabilen Espanyoli lau gol sartu zizkioten nafarrek. Hori hasiera!

Baina berak ez du harrotu nahi emaitza honeguz; lasaitasuna eskatzen du, exijitu egiten du. Seguru naiz bere burutik Athleticarekin izan zuen debuta pasatuko dela; 3-0 irabazi zion Errealari San Mamesen. Handik hile batzuetara, Lezamatik kanporatu zuten.

Baina harira noa: nik 20 urte daramatzat entrenatzen, hara eta hona, eta ahal izan dudanean, partidua eta entrenamenduak ikusten. Entrenatzaileok beti gabilta formatzen, eta besteek egiten dutenetik ikasi behar dugu. Horregatik miresten dut Mendilibar. Taldea eramateko duen moduagatik, profesionaltasunatik, eta, batez ere, bere izateko eragatik.

Ez: Mendiri inork ez dio ezer oparitu. Hemen egon eta gero, Kanarietara joan zen. Handik Eibarrera (gogoratu ia lehen mailan jarri zuela talde "armagilea"), eta gero Athleticeira; Bilbotik, Valladolidera. Han, taldea 1. mailara igo eta ondoren mailari eustea lortu zuen. Zuzendaritzak kaleratu zuenetik, taldeak ez du bururik altxatu. Orain, ziur naiz Iruñeko aukera aprobetxatuko duela. Beraz, zorte on, Mendi!

Adituarentxokoa

## Isasi da pistako Bizkaiko txapeldun berria

Zallako belodromoan jokatutako azkeneko proban gailenduta irabazi du Challengea

Urtarrilaren 25ean hasi zen Challenge Bizkaia Ziklopistard izeneko txapelketa. Ciclos Iturriaga Autos Elorrio taldeko Ziortza Isasik erakustaldia eman zuen Berrizen, eta Trapagaranen bigarren proba burutu ondoren, hilaren 20an jokatu zen azkena Zallan.

Zallan jantzi zuen txapel beltza Isasik. Gainera, podiumean Beste Alde-Duranguesa taldeko Iraide Garciak lagundu zion, bigarren postuan amaitu

zuen-eta. Hurrengo ziten artean, martxoaren 5ean, Bizkaiko txapelketa jokatuko dute Trapagaranen. Gero, Euskadiko eta Espainiako Txapelketak ere izango dira jokoan. ■ M.O.

**Beste Alde-Duranguesa taldeko Iraide Garciak lagundu zion podiumean**



Zallako podiumean, gorengo postuan, Ziortza Isasi.





### Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio  
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.  
Pintxoak.  
Eguneko menua.  
Menu bereziak.  
Kartan, aukerako okelak txingarretan.



### Betixu Jatetxea

Iturburu 9, Iurreta  
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak jantokian: asteartetik igandera.  
Afariak jantokian: ostegunetik larunbatera.  
Razioak terrazan.



### Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz  
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.  
Karta.  
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.




### Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a  
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.  
Taldeentzako menu adostuak.  
Askariak.

# Jatetxe gida



### Ganeko Etxe

Elizondo z/g, Berriz  
Tel.: 94 682 40 27


Aintzinako baserri baten gerizpe gozoan etxeko moduan sentitzeko.  
Arrain errea kartan.  
Eguneko menua: 8 euro



### Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz  
Tel.: 94 682 40 77

Karta.  
Txuleta errea.  
75 lagunentzako jangela.



### Kanpazar Erretegia

Kanpazar gaina, Elorrio  
Tel.: 94 658 29 12

08:00etatik 23:00etara zabalik.  
Astelehen eta astearte gauetz itxita.  
Astelehenetik ostiralera eguneko 11 euro



### Goiuria Jatetxea

Goiuria auzoa, 21 Iurreta  
Tel.: 94 681 08 86

Jatetxe guztiz berriztua. Eguneko menuak. Asteburuko menu bereziak.  
Karta. Ospakizunetarako menuak: ezkontzak, enpresa bazkariak, ...  
Aurrekontu guztietarako menuak.

# Errepidean aurrera egiteko asmoz, Lejarreta zuzendari-laguntzaile dela

Cafés Baqué txirrindulari taldeak 33 urte daramatza pedalei eragiten, eta aurrera begirako proiektua dela erakutsiz, lan-talde zein kirolari berriak aurkeztu ditu aste honetan.



Durangoko kiroldegian eta Kurutzia Hotelean egin zuten taldearen aurtengo aurkezpen ofiziala.

**E**z da ohikoa, gaur egun, txirrindulari talde batek horrenbeste urteko ibilbidea izatea. Cafés Baquék historia egiten segitzen du, eta horrela berretsi du asteon egindako denboraldi berrirako aurkezpenean. Sasoi berrirako asmoak heltzeko, zuzendaritza arloan fitxaketa garrantzitsua egin dute, gainera: Marino Lejarreta. Iaz Joseba Beloki batu bazitzaion Ruben Gorosperi, aurtentz berriztarra gehituko zaie zuzendari-laguntzaile.

Taldeak 33 urte bete izana nabarmendu zuten ekitaldian,

**33 urteotan, harrobiko lana egin eta 88 txirrindulari pasatu dira profesionaletara**

eta Baqué etxeak urteotan emandako laguntza eskertu zuten proiektuaren gidariek. 33 urteotan harrobi-lana egin eta bertako 88 txirrindulari pasatu dira profesional mailara. Tartean, Gorospe anaiak, Beloki bera eta Munduko txapelketa irabazitako Igor Astarloa. Bide horretan jartzen azkenak, iaz hainbat proba irabazita denboraldi ederra osatutako Dani Diaz eta Sebastián Tamayo izan dira. Ruben Gorosperen iritziz, "une honetan txirrindularitzaren munduak bizi duen egoera dela-eta, benetan harro egoteko gauza dela esan daiteke, eta aurtentz borrokan jarraituko dugu aurkezten ditugun gazte hauekin".

#### Talde gaztea

23 urtez azpikoen mailan egin du apustu aurtentz ere Cafés Baquék. 15 txirrindulari osatutako taldea aurkeztu zuen marti-

**15 txirrindularik osatuko dute taldea; horietatik bi Argentinatik datoz**

**"Lan ona" egitea dute helburu; "garaipenak badatoz, oso pozgarriak izango ei dira**

tzenean: Alex Garcia, Jon Quintanilla, Diego Leon Cuervo, Andoni Aguirre, Ierai Solaguren, David Antón, Josu Ibarluzea, Mario Arranz, Javier Lopez de Las Hazas, Jokin Morentin, Jon Gonzalez Vadillo, Victor Puertas, Jon Oria, Elias Damián Pereira eta Roman José Mastrangelo dira taldekideak. Zerrendako azken biak Argentinatik datoz, eta beste bost Madril ingurutik.

Marino Lejarreta oso pozik agertu zen Cafés Baquék egindako gonpidapenagatik. "Baquék harrobiko txirrindularitzagaz aurrera eroan duen lana zoragarria da, eta gazte hauen alde egiten duena guztiz txalotzekoa da", adierazi zuen berriztarrek. Bere ustez, "talde honegaz lasterketetan presente egon eta lan ona egitea izan behar da helburua, eta garaipenak, etortzen badira, oso pozgarriak izango dira". ■ M.O.

## Agenda

### FUTBOLA

#### LEHENENGO ERREGIONALA

**Iurretako - Apurtuete B**  
Zapatuan, 17:00etan,  
Larrako-zelain

#### BIGARREN ERREGIONALA

**Abadiño - Arrautzaldeon**  
Zapatuan, 16:00etan, Astolan

#### HIRUGARREN ERREGIONALA

**Ezkurdi - Loiu B**  
Zapatuan, 18:00etan,  
Arripausuetan

#### Elorrio B - Derio B

Zapatuan, 18:00etan,  
Eleizalden

#### Berriz B - Erandio B

Zapatuan, 17:00etan,  
Berrizburun

#### Zaldia B - Extremeño

Zapatuan, 17:45ean,  
Solobarrian

### SASKIBALOA

#### EBA MAILA

**Tabirako - Villamuriei**  
Zapatuan, 19:30ean,  
Landakon

#### 1. ERREGIONAL BEREZIA

**Tabirako - Ibaizabal**  
Martitzenean, 20:30ean,  
Landakon

### ARETO FUTBOLA

#### NAZIONA A MAILA

**Sasikoa - Rompiete**  
Zapatuan, 17:30ean,  
Landakon

#### NAZIONAL B MAILA

**Elorrioko Buskantza - Debabarrena**  
Zapatuan, 18:00etan,  
Elorrioko kiroldegian

#### EUSKAL LIGA

**Kurutzia - Eskoriatza**  
Zapatuan, 19:30ean,  
Landakon

#### Sasikoa B - Santurtzi

Domekan, 12:00etan,  
Landakon

### PILOTA

#### BIHARKO IZARRAK

**- Azpiri - Perez / Narbarte - Linzoain**  
**- Arrese - Aldape / Elezcano - Castillo**

Zapatuan, 17:00etan,  
Mallabiko pilotalekuan

**- Apeztexea - Untoria / Albarado - Telletxea**  
**- Atxotegi - Aldape / Mendizabal - Lukin**

Eguenean, 21:30ean,  
Mallabiko pilotalekuan

### ERRUGBIA

#### EUSKAL LIGA

**Durango Ilarduya - Const. Rivago**  
Zapatuan, 16:00etan,  
Arripausuetan

**Elorrio - Bera-Bera B**  
Zapatuan, 16:30ean,  
San Roken

## Kulturalak sendo darrai play off postuetan

**Etetik kanpora puntu gehien lortu duen taldea da Kulturala. 29 puntu lortu dituzte.**

Sestaoren aurkako partidua garrantzitsua galdu ondoren, bi garaipen jarraian kateatu ditu Kulturalak. Asmoa bolada on horri segida ematea da; horretarako, Zallaren kontra jokatu beharko du etzi, domekan, arratsaldeko 17:00etan. 26. jardunaldia jokatu, Kulturalak 52 puntu ditu eta laugarrena da

**Aurreko jardunaldian 2-0 irabazi zion Kulturalak Gernikari.**

sailkapenean; Amorebieta hirugarren da, puntu kopuru beragaz. Azkeneko jardunaldi honetan lehenengo postuekiko alde txikitzea lortu du Kulturalak: puntu bakarrera du Laudio; bigarren sailkatua, Sestao lidera, berriz, lau puntura du.

Etetik kanpora punturik gehien lortu duen taldea da Kulturala. Guztira, 29 puntu lortu dituzte Tabirako zelaitik urrun durangarrek.

Aurreko jardunaldian, 26.ean, 2-0 gailendu zitzaion Kulturala Gernikari. Iban Espinosa eta Ibon Enziondo jokalarien golei eskerrak irabazi zuten durangarrek. ■ A.M.

**kirol errota**

**KIROLA EGINEZ ONDO PASA!**

- Gimnasioa
- Sauna
- Cycling birtuala
- Aparkalekua
- Hainbat ekintza:
  - Power pump
  - Ars Corpore
  - Kick Power
  - Cycling
  - Pilates
  - Tai chi
  - Kick Boxing
  - Integral Fit
  - Dantzak
  - Wellness eta Fitness plana

• Orduetegi zabala: Asteleheneetik igandera 07:00etatik 23:00etara.

• Informazio gehiago: 09:00-13:00 / 17:00-21:00.

**www.jasokiolak.com**

Intxaurren, 54  
48200 Durango • Tel.: 94 621 60 21  
kirolerrota@jasokiolak.com

# INMOBILIARIAK >



**AMBOTO**  
INMOBILIARIA

San Agustinalde, 4 - 1 ezk - 48200 DURANGO  
Tel.: 94 681 35 62 • iamboto@euskalnet.net

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### DURANGO

- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, egongela, eskegitokia eta 2 komun. 2 balkoi. Ganbara eta garajea. Zatoz ikustera.
- Apartamentu berriak eraikitzen. 700€ hilero. EZ GALDU AUKERA HAU.
- ERDIALDEA: AZKENEKO APARTAMENTUA. Logela bat edo bikoak, sukalde jantzia, komuna eta horma-armairuak. Edo nahiago baduzu alokatzen dizugu.
- HERRIKO GUDARIEN: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela balkoiarekin. Ganbara eta garajea.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatuko. Zonalde onean kokatua.
- PLATERUEN PLAZA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela. Ganbara eta garajea.
- ASKATASUN ETORBIDEA: Eraikuntza berriak. 2, 3 eta logela bakarrekoak. Durango erdialdean.
- ZEHARKALEA: Atikoa. Guztiz berriztatua. 2 logela, sukaldea, egongela - jangela eta komuna.
- ANDRA MARI: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
- BARRENKALE: AZKENEKO DUPLEXA. Eraiki berriak. Berehalako banaketa.

### BERRIZ

- Logela, sukalde "amerikarra", egongela eta komuna. Berria estreinatuko. 96.000€.

### ELORRIO

- 2 logela, komuna, sukalde amerikarra eta egongela-jangela. Berria.

### ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

### ATXONDO

- 2 logela, komuna, bainugela, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du.

## TXALETAK SALGAI

### URRUTXUA

- Baserria, 8 hektareako lursailarekin. Gernika, Durango eta Bizkaiko Balkoiarekin ondo komunikatuta. Prezioa adosteko prest.

### DIMA

- Baserria salgai. 4.000 m2-ko lursaila. Balzolakobetatik gertu.
- Baserria salgai. Hektarea bateko lursaila. Indusi zonaldean.

### MALLABIA

- TRABAKUA: Baserria. 140m2 solairuko. 20.000 m2-ko lursaila. Durangotik 10 minutura.

### OTXANDIO

- Guztiz berriztuta dagoen baserria. 3 solairu, sukaldea, egongela - jangela, 2 komun, 3 logela, egongela eta atikoa.

### ABADIÑO

- MENDIOLA. Bifamiliarra. Eraiki berria. Estreinatuko. Informazio pertsonalizatua.
- Bifamiliarra. 4 logela eta 3 komun. Garajea, trastelekua - txokoa. Lorategia barbakoarekin. Leku onean kokatua.

### GARAI

- Adosatua salgai. Estreinatuko. Leku ezin hobean kokatuta.

## LUR SAILAK SALGAI

### OROBOS

- 4.200 m2-ko lursaila. Guztiz laua.

### IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeitxe bat egiteko aukera dago.

### LEMOA

- 2.800 m2 eta 2.700 m2-ko lursailak eraikitzeko baimenarekin. Prezio interesgarria.



**Fernando Uribe**

Barrenkalea 15, behea • Tel./Fax: 94 681 64 23  
48200 DURANGO - Bizkaia

## ETXEBIZITZA BERRIAK

- ZALDIBAR: Eraikitzen dauden etxebizitzak salgai.
- ATXONDO: Adosatua lursailarekin salgai.
- ABADIÑO: Txalet bifamiliarra lursailarekin salgai.
- DURANGO-ERRETENTXU: Salgai. Adosatua eraikitzen.
- BERNAGOITIA: Zornotza. Unifamiliarra lursailarekin.
- OTXANDIO: Adosatua. Eraikuntza berriak.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARI: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2/4 logela, 2 komun eta egongelaxoa.
- ANDRA MARI: Halla, egongela, sukaldea, jangela, 5 logela, 3 komun eta egongelaxoa.
- ANTSO EZTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna.
- ANTSO EZTEGIZ: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Guztiz berriztatua. Estreinatuko.
- ARAMOTZ: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- ASTOLA BIDEA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Balkoia.
- BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Guztiz berriztatua.
- BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela, komuna eta despentsa.
- UNDA TORRE: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna.
- ZUBIAURREA: Halla, sukaldea, 4 loge, egongela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- MARTXOAREN 8ª: Halla, sukaldea, 2 logela, egongela eta 2 komun. Terraza handia.
- ERROTARITXUENA: Halla, sukalde jantzia, logela bakarra edo 2 logela, egongela, 2 komun eta eskegitokia. Terraza. Garajea. Prezio interesgarria. Berriak estreinatuko.
- GALLANDA: Halla, sukaldea, egongela, logela bakarra edo 3 logela, komun bakarra edo 2 komun eta balkoia. Ganbara eta garajea. Prezio interesgarria. Berriak estreinatuko.
- EZKURDI: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 / 4 logela eta 2 komun.
- F.J.de ZUMARRAGA: Halla, 2 egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- F.J.de ZUMARRAGA: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- GASTEIZ BIDEA: Halla, egongela, 3 logela, sukaldea eta komuna. Despentsa eta balkoia. Garajea aukeran.
- INTXAURRONDO: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna. Trastelekua.
- IPARRAGIRRE: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela, 2 komun eta terraza. 2 kotxerentzako garajea eta trastelekua.
- JUAN DE ITZIAR: Halla, egongela, sukaldea, 2/3 edo 4 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa.
- KALEBARRIA: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Despentsa. ( Guztiz berriztuta ).
- KALEBARRIA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. ( Guztiz berriztuta ).
- KOMENTU KALEA: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. ( Guztiz berriztuta eta erdi jantzia ).
- KOMENTU KALEA: Halla, sukaldea, egongela-jantzia, 4 logela eta komuna. Ganbara.
- LAUBIDETA: Halla, sukalde-jantzia, egongela, 2 logela eta komuna. Terraza.
- MONTEBIDE: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 5 logela eta 3 komun. Terraza. Ganbara. 150 m2.
- PLATERUEN PLAZA: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- SAN IGNAZIO: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta komun bakarra edo 2 komun. Balkoia. Garajea aukeran eta trastelekua.
- SAN FAUSTO: Halla, sukalde-jangela, 2 logela eta komuna.
- SASIKOA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- TABIRA: Halla, egongela-jangela, logela, komuna eta eskegitokia.
- TXIBITENA: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia eskegitokiarekin, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Erdi jantzia. Ikuspegiakin.



**Inmobiliaria del Duranguesado**

Askatasun etorbidea, 10 - 48200 DURANGO  
Tel./Faxa: 94 681 66 66  
www.inmoduranguesado.com  
inmoduranguesado@gmail.com

## ETXEBIZITZAK SALGAI

